

2014ko Urria

K

Oñatiko Udala 243. zkia.

KONTZEJUPETIK



TXANTXIA
OÑATIKO MONETA SOZIALA
Urriaren 1etik zirkulazioan da Txantxia


pinturas
MUNOZ
margoak

*MARGOAK, ATE METALIKOAK
eta ATE AUTOMATIKOAK*

Olakua 7, behea
Tel.: 686 975 819
20560 Oñati

➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua



HAUR LIBURUTEGIA
"Kimutx: izaki mitologikoen..."




LITERATURA
"Tunelak, izarak, mozorroak eta bafleak"



CD MUSIKA
"Popular problems"



GAZTE LITERATURA
"Guardianes de sueños"



POESIA
"Urari ostutako poemak"



AUTOBIOGRAFIA
"Viviendo mi vida"



SAIAKERA
"Cómo funciona la música"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
10:00 - 13:00 / 16:30 - 20:30
Larun.:
10:00 - 13:30

HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:
16:30 - 19:30



TXALOKA Ludoteka

ATE IREKIAK egunero.
Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!

TXALOKA LUDOTEKA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16.45-19.45

GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorleraren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Pentsioa nork?

Beñi Agirre, Euskara irakaslea

Nire bizkarrean badituz hirurogei urtetik gora, hemezortzirekin hasi nintzen lanean eta Aseguru Sozialean kotizatu dudana guztia Espainiakoan ordaindu dut. Zer diozue? Independizatuko bagina, akaso, ez nukeela pentsiorik izango? Bai, zera!

Bi aukera daude. Bata, Espainiari honetarako eman diodan guztia gaur egungo balioekin Estatu berriari itzultzea eta hark nire erretiroaren kargu egitea edo orain egiten den moduan, Alemanian lana egin duen pertsona baten kasuan adibidez, sosak jaso dituen estatuko dirua jasotzerakoan hitzarmenean hartu dituen konpromisoak betetzea, hau da, berak ordaintzea bizi naizen lekuan bizi naizela.

Nik lehenengo aukera nahiago.

Olaiturri elkarteari esker onez

Jose Antonio Urteaga (Hermansoloña)

Niermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak eskerrak eman nahi dizkio Olaiturri elkarteari, aurten ere, aurreko lau edizioetan bezalaxe, diru-batzea egiteko aukera eman digulako 'Iparragirre Oñatin' antzezlanaren bi emanaldietan. Bertan batutako dirua Argentinako Jose C. Paz hirian bultzatzen ari garen Nazareth izeneko proiektura bideratuko dugu.

Proiektu honen barruan errekurtsorik gabeko gazteendako etxebizitzak, tailerrak eta baratzak eraikitzen ari gara, Udala, Aldundia, Ulma, Irizar eta Oronaren laguntzarkein.

OHAR ETA DEIALDIAK

► EHIZA POSTUEN ZOZKETA

Aurten ere zozketatu egingo dira Aizkorri-Aratz lerroan dauden ehiza-postuak. Urriaren 3an egingo da lehen zozketa, eta azaroaren 7an azkena. Oñati tabernan egingo dira zozketak. Arratsaldkeo 19:30etatik 20:00ak arte izena emateko tartea zabalduko da, eta 20:00etan zozketa egingo da..

Astelehenetik ostegunera, hurrengo egunerako postuak zozkatuko dira. Ostiraletan, zapaturako, domekarako eta astelehenerako zozketak egingo dira. Jai bezpera egunetan, jai egunerako eta hurrengorako zozketa egingo da. Derrigorrezkoa izango da Gipuzkoako federazioko pasa-txartela aurkeztea, eta pertsona bakoitzak txartel bat bakarrik aurkeztu ahal izango du.

► 1968an jaiotakoekin kinttadia

1987ko kinttoek (1969an jaiotakoekin) aurten 45 urte betetzen dituzte, eta hori ospatzeko afaria egitea pentsatu dute azaroaren 15ean, Etxe Aundi jatetxean, izena emateko, 20 euroko diru sarrera egin behar da Caja Rural Kutxako kontu honetan: ES22 3008 0198 2330 03076720, azaroaren 7a baino lehen. Animo! giro bikaina egongo da eta!.

► Zarautzera irteera TRAUTI elkartearekin

Oztopo arkitektonikorik gabeko herri baten alde lanean diharduen 'TRAUTI-Hesirik Gabek' elkarteak irteera bat antolatu du Zarautzera urriaren 18rako. Eragozpen eta mugikortasun murriztua duten pertsonen eta hauen laguntzaileei zuzenduta dago, Urriaren 10a baino lehen eman behar da izena, Rafale Kortabarria (656711000), Mikel Etxezarreta (617241053) edo Jose Ignacio Balzategiri (637024631) deituta

► HARRERA elkartearen zozketa

Kartzelan edo erbestean egon ondoren askatasuna lortuko dutenen bizimodu duina bermatzea helburu duen Harrera elkarte asistentzialak egindako zozketan xxxxxxxxxxxxxxxx-i egokitu zaio saria (8 lagunendako mariskada).



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duen **Etxe-Aundi** bikote guzlien artean, **Kanariar Uhartetara joateko bi bidai** * zozketatuko ditugu.

* pentsio asunt

Informatu zaitez!!

www.etxeaundi.com



Tokiko Gobernuari Galdezka



TABAKOAREN LEGEA



Tabakoaren legea betearazi edo betetzen dela ziurtatzeko Udalak zerbait egiteko asmorik duen edo ez jakin nahi nuke. Nik uste herritar guztiok dakigula lege hau gure herrian gauzez ez dela betetzen eta zergatia jakin nahiko nuke. Ni saiatu izan naiz, lasaitasunez, erretzen ikusten nuenari kanpora joateko eskatzen, baina gertatu zait beste aldekoak ondo hartu ez izana eta burua makurtu behar zeren bestela... batek daki zer geratutuko litzatekeen. Ertzantzara ere jo nuen, baina ez omen da beraien eskumena, Udalarena baizik, eta udaltzaingora jo behar nuela, baina Oñatin gauzez ez daukagu udaltzainik; beraz, gauzez ateratzen naizen bakoitzean besteen kea pairatzea besterik ez zait gelditzen momentuz. Beraz, Udalak ba al dauka ezer egiteko asmorik? Ikuskariak eskatu, gauzez ere udaltzainak jarri, tabernei zigor ekonomikoak ezarri...



Drogamenpekotasunen arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko 1/2011 legeak bere 54. artikuluan ikuskapen eta zehapen-eskumena definitzen duenak zera dio: "Tabakoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren menpeko ikuskapen-unitateek (Ertzantza) izango dute kontrol-eta ikuskapen-funtzioa. Horiek beren ohiko ikuskapen-funtzioen artean sartu beharko dute tabakoaren sustapen, publizitate, salmenta eta kontsumoari buruz lege

honetan azaltzen diren aurreikuspenak betetzen ote diren zaintzea"

Beraz Ertzainak gezurra esan zizun. Dena den, Udal Gobernu Taldetik dei egiten diegu herritarrei legea bete dezaten.

SOKAMUTURRA



Jaietako programiari begirada bat botaten ikusi dot aurten be sokamuturra egongo dala. Noizko jai batzuk animalia sufrimendu barik? Planteau al dozue beste alternatibarik?



Jaiak eta bertan animaliek duten presentzia sokamuturra baino haratago doa. Egia da agian sokamuturra izan litekela ebidenteena, animalia osoki zaleen dibertsiorako bideratzen delako. Ildo honetan, udal gobernuak erabaki zuen herriko jaietako programaziotik zeren txikitxoak eta zalditxoak kentzea. Jakina da gure herrian errotua dagoen usadioa dela sokamuturrarena eta zale asko dituela. Hau horrela izanik ere, positiboa litzateke jaiak eta animalien arteko harremanaren inguruan hausnarketa lasaia burutzea,

TOKIKOARI GALDEZKA

Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera

PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tfn: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

iurrutia.bidebarri@gmail.com

ADMINISTRAZIO LANAK

-Kontratua egitea

-Gizarte Segurantzaren alta ematea

-Nominak egitea

HAUTAGAIEN AZTERKETA

-Enpresako konfidantzazko langileak

-Esperientziadunak

oposiziotik

Lourdes Idoiaga - EAJ

**HERRI EKIMENA
ETA PARTAIDETZA**

Erakunde politiko eta gobernuen kasuan **modan jarri da herri partaidetzaz hitz egin eta horren inguruko adierazpen potoloak egitea**, herriari hitza ematearen garrantzia eta erabakiak modu partekatuan hartzeko beharra azpimarratuz.

Baina ikusgai ditugun eruedetan adierazpenetatik egiazko herri partaidetzarako pausoa ematea da erronkarik handiena. Zintzotasuna eta egiazko praktikaren harira zentzuzko adierazpenak egiten dituztenak ditugu batetik, eta herritarrak beraien alderdi edo gobernu interesen arabera erabiltzen dituztenak bestetik; eta beharrezkoa da eredu horiek identifikatu eta desberdintzen ikastea.

Euskal Herrian, herri ekimenari esker eraiki eta lortu dira hainbat gauza, besteengandik bereizi eta gure errealitatearen parte direnak. Oñatin ere herri ekimenez egindako Ikastola, Oñatz Kultur Elkarte (dantza taldea, kultur ekintzak, danborrada...), Aloña Mendi, musika eta abesbatza taldeak eta Ganbara ditugu, besteak beste.

Eragile politikoek eta gobernu instituzionalek herri ekimenetik eratorritako proiektuak kontu handiz eta modu berezian babestu, indartu eta errespetatu behar dituzte

Herri moduan bereizten gaituzten errealitate horiek herri ekimenaren ondorio dira, ekintzaletasun, eskuzabaltasun, gizarte konpromisu eta euskal herrialdea eraikitzeko ilusio eta gogoaren erakusle zuzena, beste kulturak hartuko dituen herrialde plural, tolerante, moderno, baikor eta solidarioa lortze bidean.

Eragile politikoek eta gobernu instituzionalek herri ekimenetik eratorritako proiektuak kontu handiz eta modu berezian babestu, indartu eta errespetatu behar dituzte, eta inoiz ez naturalki garatu eta egungo egoeretara egokitu direnak oztopatu edota horiei erabilera alderdikoia eman norberaren interesen defentsan.

Guk herri partaidetzan eta herri ekimenaren garapenean sinesten dugu, erabakiak herritarrekin partekatu nahi ditugu, baina ez ekimenak zapuztuko dituzten helburu politikoak inposatuz. Aukera politiko bakarra ez inposatzearen eta proiektuen berezko garapena ez oztopatzearen aldekoak gara eta horren defentsan dihardugu.

gobernutik

Mikel Biain - Bildu

IKASTURTEARI EKITEKO GERTU!

Lan ildo nagusiak definitzen aritu gara alorrez alor irailean zehar, **kurtsuan garatu beharreko plangintzaren ardatz nagusiak osatuz.** Ardatz guzti hauek, **2015eko aurrekontu proposamen zehatzetan izan beharko dute isla.**

Orain arte bezala 4 multzo nagusitan banatu ditugu alorrak, bilatu nahi dugun jendarte ereduak lortze aldera: **pertsona lehenesten** duen jendartea, **ama lurra babesten** duen jendartea, bere **kultura sustatzen** duen jendartea eta **askatasuna ardatz** izango duena.

**Proposamenak egiteko, entzun.
Erabakitzeko, partekatu.
Irabazteko, borrokatu**

Lehen blokean **oñatirako gizarte baliabideak definitzeko** prozesu parte hartzaile bat izan dugu martxan eta horren ondorioak gauzatze aldera **ongizate sailaren berrantolaketa** eman beharko da sartu berri garen ekitaldian. Bestalde, **bertako merkataritza, ostalaritza eta negozioekiko konpromisoz** hitzetatik ekintzetara pasa eta herri **moneta soziala** jarri berri dugu abian. Azkenik, **gazteei zuzendutako etxebizitza alokatzeko laguntza politika** ari gara lantzen, zeina ikasturte honetan ernai beharko den.

Ama Lurrarekin bat egingo duten asmoei dagokienez, **mugikortasun planean jasotako ekintzak** gidatuko dituzte datozen hilabetetako jarduera asko. **Baratza publikoen egitasmoa** abiatzea eta **Arantzazuko aterpetxe** eta **San Martingo auto-karabana aparkalekua** martxan jartzea izango dira azpimarratzeko beste egitasmoak.

Bere Kultura sustatuko duen jendartea lortze aldera **Eltzia egitasmoak** eta burutzen ari garen **Kirol Planetik** eratorritako ekintzek osatuko dute aurtengo egitekoa.


Amaitezko, azken blokean, aisialdi hezitzailea helburu, **Gazte Planaren garapena, Berdintasunaren bidean abiatutako politiketan sakontzea eta aniztasun ezberdinen** (funtzionala, sexuala, jatorri eta kulturala) **integrazioarako ekintzak garatuko ditugu.**

Ez daukagu erronka makala eta zuek guztion beharrean izango gara **asmo orokorretatik jaitsi eta asmo zehatzak definitzeko.** Datozen egunetan 2015eko aurrekontuak zehazteko zabalduko dugun prozesuan izango da **ekarpenetarako aukera.**

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI
Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:** 
publi@oinati.net




GORA HEMENGO NEKAZARITZA

Nekazaritzak azken mende erdian demaseko atzerapausoa eman du bizi garen inguruan. Industrializazioak eta zerbitzuen sektorearen garapenak, ito egin dute lehen sektorea; hau da, merkatuak eta aurrera eraman diren erabaki politiko batzuek.

Soldatapeko lanaren %64a hirugarren sektorean aurkitzen da. Euskal Herrian, biztanleriaren %60a baino gehiago hirietako sare urbanoetan bizi da. Bizkaia eta Gipuzkoan, lehen sektoreak Barne Produktu Gordinean duen pisua %0,9koa da. Araba eta Lapurdin berriz, %2,3 eta 2,4koa eta Nafarroa Garaian %6,5koa. 2007an Euskal Herriko lan guztiaren %2a zen lehen sektorea, huskeria hutsa. Nafarroan, bestalde, lehen sektorea eta dibertsifikazio espazial eta produktiboa gehiago babestu izan da EA Erekin alderatuta.

Globalizazio ekonomikoaren ondorioz aldaketa estrukturalak gertatu dira, baina pentsatzeko eta ekiteko moduak ere asko



Aimar Uribealago



Hainbeste maite dugun Euskal Herria kontsumo dinamikan sartua da aspaldidanik. *Basque way of life*-ren kultura nagusitu da: despilfarroa, kontsumo masiboa...

aldatu dira. Hainbeste maite dugun Euskal Herria kontsumo dinamikan sartua da aspaldidanik, Basque way of life-ren kultura nagusitu da: despilfarroa, entretenimendu alienatuaren kontsumo masiboa, teknologia berriek sorturiko inertzia, supermerkatuen presentzia gero eta handiagoa, etab. Beraz, egoera honetan normala da hainbeste maite dugun Euskal Herri hori ere hainbeste gorrotatzea.

Baina eredu baten zabalkuntzak beste "kontra-eredu" batzuk sortu izan dituela ere egia da. Adibide garbia dugu Euskal Herrian suspertzen ari den maila lokaleko nekazaritza ekologikoa: bertako produktuak, sasoiari sasoikoak, pestizida eta ongari kimikorik erabiltzen ez dituztenak, azokara hurbildu eta zuzenean eskuratu ahal direnak. Luzera begirako Euskal Herri bat nahi badugu, berauek dira elikadura burujabetzarantz abiatzeko ereduak. Gora hemengo nekazaritza!

SUKALKIA

Zer da SUKALKI famatua? Euskal sukaldaritza eta, bereziki, Bizkaia aldeko gisatu tradizional bat da. Azken finean, gisatzeko okela sueztitu ondoren, saltsan egindako jaki goxo bat baino ez da. Normalean kazola sakon eta pisutsuetan prestatzen da, su motelean egosi ahal izateko bere zukua galdu barik, tapakia jarrita. Horretarako, aurretik okela goxatu egin behar izaten da, babesgeruza bat sortzeko eta barruko zukurik ez galtzeko.

Jateko gozagarri honen osagai nagusiak gisatzeko okela, patatak, barazkiak eta piper txorizeroak dira. Kipula, azenarioa, olioak, gatzak eta piperrarekin prestatzen da, eta beste lagungarri batzuk ere izan ditzake.

Oñatiko Larrain Gain elkarteko zuzendaritzako kideek, zaharrek eta berriek, Mundakako Sukalki lehiaketa ospetsua bertatik



Fernando Mendiguren (Bakio)



Larrain Gain elkarteko zuzendaritzako kideek Mundakako Sukalki lehiaketako irabazlea dastatzeko aukera izan zuten

bertara ezagutzeko aukera izan zuten ekainaren 30ean.

Berrogaita hamalau kazola aurkeztu ziren lehiaketara, eta irabazlea gure anfitrioiak izan zen, Bakio Jon Peli. Ondoren, herri bereko Bidezabal elkarteak, bertako bazkide fundatzaileetako bat da Jon Peli, sukalki txapelduna dastatzeko aukera izan genuen eta, zinez, zoragarria zegoen.

Egun aparta igaro genuen. Eguraldi ona, giro jatorri, aldarte bikaina eta txakoli ederra izan genituen lagun, Bizkaia aldeko txoko horretara egindako bisitaldian. Bizitza mereci duen momento horietako bat, eta, bide batez, gure euskal herriaren dibertsitatea eta aniztasuna hobeto ezagutzen laguntzen duena.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

5ta. Maila, 6
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKIN ENPOTATUTAKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Larriño 6, 200, 44
Tel.: 943 78 25 97
Mug.: 688 630 754
OÑATI

Baserriko ogia, egurrezko liburuak

IKASTAROAK

2014/15

OÑATI

LANERAKO PRESTAKUNTZA

Hobetuz 2014

Langileentzat lehenetsiak

% 100 DIRUZ LAGUNDUTA

IKASTAROA	KODIA	ORDU	ALDRE BUKITZARAZ DATA
FABRIKAZIO ARLOA			
Mekanizazio tornu eta fresatze-makinari: Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesua. Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-produktuen egiaztapena.	UF0801 UF0803	110	2015 Martxo
CNC programazioa: Piezak txirbil-harroketa bidez egiteko CNC programak egitea.	UF0679	80	2015 urtarrila
Soldadura, estalitako elektrodoekin: Planoen interpretazioa soldaduran. Ebaketa-prozesuak eta erizak prestatzea. Altsari karbonozko profil eta xalitz estalitako elektrodo bidezko soldadura, erutilizako elektrodoak dituenak.	UF1640 UF1622 UF1623	220	2014/2015
MUNTAIA ETA MANTENTZE-LAN ARLOA			
Muntala eta mantentze-lan mekanikoa: Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa. Sistema mekanikoen abiaraztea eta erregulazioa.	UF0456 UF0457	120	2015 urtarrila
Automatismo elektriko eta elektronikoak: Ekipu-ondasunen eta industria-makinen sistema elektrikoak eta elektronikoak muntaketa eta konponketa.	UF0458	90	2015 urtarrila
Automatismo pneumatikoak eta hidraulikoak: Ekipu-ondasunen eta industria-makinen sistema pneumatikoen eta hidraulikoen muntaketa eta konponketa.	UF0459	90	2015 urtarrila
Automatismo elektropneumatikoak eta elektrohidraulikoak: Linea automatizatuen sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak.	UF0624	70	2015 martxo
ENERGIA BERRITZAGARRIEN ARLOA			
Instalazio fotovoltaikoak: Elektrotelentza. Eguzki-instalazio fotovoltaikoen zuzenaketa eta funtzionamendua.	UF0149 UF0150	150	2014/2015
DISEINU ARLOA			
Ordenagailu bitarteko diseinua (CAD). 2D.		40	2014/2015
Ordenagailu bitarteko diseinua (CAD). 3D.		40	2015 urtarrila

OHARRA: Ikastaroen hasiera datak parte-artzialen lan-eremotaren arabera aldatu daitezke.

Langabeentzat lehenetsitako ikastaroak ere ematen ditugu. Informa zaitez!!

Izen-Ematea: **IEG R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI**
LARRAÑA Lanbide Heziketa egoltzan

San Lorenzo z/g

943 78 21 50

harrera@onati.net

www.onati.net

Epea zabala!!!







Hemen dira TXANTXIAK

 **Urriaren 1etik zirkulazioan da Txantxia, Oñatiko moneta soziala**

 **Udalak 15.000 euroren balioa duten txantxiak banatu ditu jada, jaietako sari eta dieten bidez**

 **Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzutako 86 establezimenduk egin dute bat proiektuarekin**

 **Herritarrek azarotik aurrera eskuratu ahal izango dituzte txantxiak udaletxeko truke bulegoan**

Herriko merkataritza dinamizatzeko helburuarekin sortu den moneta sozialaren proiektua abian da, ekimenarekin bat egin duten 86 establezimenduren partehartzearekin.

Udalak, dagoeneko, 15.000 euroren balioa duten txantxiak jarri ditu zirkulazioan, herriko jaien inguruan ematen dituen hainbat sari eta dieta moneta berriari ordaindu baititu. Sareaz gain, zerga kontzeptu batzuetan ematen dituen hobariak ere Txantxitan eman asmo ditu Udalak (25.000 txantxi inguru).

Orotara, Udalak, herritarrek eta enpresek egindako ekarpenari esker, urtean 150.000 txantxi zirkulazioan jartzea espero du udalak.

Diru hori guztiori proiektura atxikituta dauden establezimenduetan gastatu beharko da derrigorrez. Modu horretan, erosketak egiteko zirkuito itxi bat sortu nahi da, herritarren gastu-ihesa murriztu eta herriko ekonomia indartzeko asmoz. Gainera, txantxiaren erabilerak uzten duen marginari esker, elkartasun proiektuak sustatu ahal izango dira.

Hurrengo erronka izango da herritarren artean zabaltzea ahalik eta gehien txantxien erabilera. Helburu horrekin, erabiltzaileak onura komertzialak izango ditu txantxiak eskuratzen dituenean. Hala, tokiko moneta erosten duen momentuan bertan %5eko hobaria aplikatuko zaio; adibidez, 100 euroren truke 105 txantxi jasoko ditu.

TXANTXIA - Oñatiko Moneta Soziala - ELKARRI LAGUNDUZ proiektua**funtzionamendua** **ERAKUNDE JAULKITZAILEA**

● Udalak, Garapen Agentziaren bitartez, sortuko du moneta, eta bera arduratuko da funtzionamendua kudeatzeaz. Truke-bulego bat egokituko du udaletxean, txantxiak erosi edota eurotara trukatu ahal izateko.

KANBIO-TASA

● 'EURO 1 = TXANTXI 1' izango da monetaren baliokidetasuna edo kanbio-tasa.

MONETA ZATIAK

● Bilete-paperean inprimatuko dira txantxiak, eta honako zatiak izango ditu: 10 eta 50 zentimo, eta 1, 5, 10 eta 20 euroko bileteak egongo dira.

TXANTXIAK EROSI

● Edozein herritarrek eskuratu ahal izango ditu txantxiak. Erosketa bakoitzean gutxienezko kopurua 20 eurokoa izango da, eta gehienezko kopurua 500 eurotan finkatu da, erabiltzaile eta hiruhileko bakoitzeko.

IRAUNGITZE DATA

● Tokiko monetaren zirkulazio handiagoa sustatzeko, Txantxiak iraungitze edo kaduzidade data izango dute. Urtean lau: abenduaren 31n, martxoaren 31n, ekainaren 30ean eta irailaren 30ean. Hau da, erabiltzaileek lau hilabete izango dute, gehienez,



txantxiak gastatzeko. Hiruhilabetekoaren azken hilabetean erositako txantxiak hurrengo hiru hilabetea amaitu arte erabili ahal izango dira. Bileteen atzealdean adieraziko da iraungitze edo kaduzidade data.

● Iraungitze-data bete eta erabiltzaileak ez baditu Txantxiak gastatu, bilete horien iraungitze-data berri beharko du truke-bulegoan. Horrek zigor edo penalizazio txiki bat izango du, biletearen balioaren %3koa, hain zuzen. Horrela batutako dirua gizarte-funtsera bideratuko da.

TXANTXI-EURO TRUKEA

● Erabiltzaileek ezingo dituzte Txantxiak euroekin trukatu, tokiko monetaren sistema indarrean dagoen bitartean. Gastatu egin behar dituzte erositako Txantxiak.

● Proiektuan parte hartzen duten

establezimenduek nahi dutenean aldatu ahal izango dituzte Txantxiak euroen truke. Truke-salmenta horretan, txantxiak duten balore globalaren %3ko tasa edo deskontua aplikatuko zaie merkatariei, erabiltzaileei ematen zaien hobaria (%5) konpentsatzeko neurri gisa.

onurak **ERABILTZAILEENTZAT**

● Txantxiak erosten dituzten herritarrek %5eko hobaria edo saria jasoko dute; adibidez, 100 euroren truke 105 txantxi eskuratuko dituzte. Erabiltzaileak erabaki ahal izango du hobariaren zati bat gizarte-funtsera bideratu nahi duen ala ez.

● Proiektura atxikitako establezimenduek Txantxiaren erabilera promozionatzeko urtean zehar antolatuko dituzten deskontu osagarri eta eskaintza berezietatik aukera izango du erabiltzaileak.

MERKATARIENTZAT

● Merkatariei eta ostalarietara bezerao berriak erakarri eta emaitzak hobetzeko aukera izango dute.

GIZARTE FUNTSA

● Herriarentzako onura soziala ere ekarriko du moneta berriak. Txantxiaren erabilerrari esker gizarte fondo bat osatuko da, elkartasun proiektuak garatzeko bideratuko dena.

Herritarrek azarotik aurrera eskuratu ahal izango dituzte Txantxiak

Tokiko monetaren ezarpen prozesua era mailakatuan egin nahi du Udalak. Horregatik, herritarrek azaro arte itxoin beharko dute Txantxiak eskuratu ahal izateko, udaletxean egokituko den truke-bulegoan.

Aurretik, hil honetan zehar informazio kanpaina berezia egingo du Udalak, Txantxiaren inguruko informazioa herritar guztiei helarazteko asmoz. Alde batetik, triptiko bat banatuko du etxe guztietara. Gainera, herritar guztiei zuzendutako hiru hitzaldi antolatuko ditu, moneta sozialaren ezaugarri eta funtzionamenduaren berri emateko. Herriko ikastetxeetako Batxilergoko ikasleei begira ere hitzaldiak antolatuko ditu ekonomia zirkularra eta tokiko monetaren inguruan. Eta horiez gain, Txantxiaren funtzionamenduaren berri ematen duen bideo labur bat ere prestatu du Udalak, sare sozialen bitartez zabaltzeko.

ENPRESAK AUERRERAGO

Proiektu honen helburuetako bat da egunero herriko enpresetara datozen kanpoko pertsonen Oñatin egiten duten gastua suspertzea. Horretarako, Udalak ahaleginak egingo ditu herriko enpresak proiektu honetan parte har dezaten, ekarpen ekonomiko zuzenak eginez gizarte fondora, edo Txantxi kopuru bat erosi eta langileen eskura jarriz Gabonsari moduan, edo soldataren zati bat txantxitan ordainduz hala nahi dutenei Azken batean, enpresak tokikoarekiko duen konpromisoa erakusteko modu bat da.

Txantxiaren inguruko hitzaldi informatiboak

Udalak antolatuta hiru hitzaldi egongo dira urrian zehar, Txantxiaren ezaugarri eta funtzionamendua azaldu eta ekonomia zirkularren garrantziaz gogoeta egiteko. Herritar guztiak daude gonbidatuta:

● **URRIAK 22**

Kultur etxean, euskaraz

● **URRIAK 27**

Eltzia eraikinean (Eteo zaharra), euskaraz

● **URRIAK 29**

Kultur etxean, gazteleraz

Moneta sozialera atxikitu diren ESTABLEZIMENDUAK



Txantxiarekin bat egin duten merkatarietako batzuk

JANARI DENDAK

GERETA ARDOAK
ERREKALDE AUTOZERBITZUA
SAN LORENTZO FRUTA DENDA
SUSTRAI FRUTA DENDA
TXANTXIKU FRUTATEGIA
BIDEBARRI OKINDEGIA
ERROTA OKINDEGIA
ESKOLATXO OKINDEGIA
IRAZOLA OKINDEGIA
IRIZAR OKINDEGIA
TXOKOLATEIXIA
ANTXON HARATEGIA
GARAI HARATEGIA
TARSICIO HARATEGIA
TXANTXIKU HARATEGIA
FERNANDEZ ARRAINDEGIA
KRESALA ARRAINDEGIA

JANTZI DENDAK, OINETAKOAK KIROLAK, LURRIN DENDAK...

ENE BADA MODA
LANTZEN OIHALAK
LETAMENDI
LUAR
MARKU
NI MODA
OLALDE OINETAKOAK
PATXI OINETAKOAK
URRUTIA EMAKUMEAK
URRUTIA GIZONAK
CARAVANAS OÑATE
LIZARRALDE KIROLAK
MENDIZABAL KIROL DENDA
ANE MERTZERIA
ARANTZA MERTZERIA
KUTTUN LENTZERIA
LAKET LURRINDEGIA

ETXEA, DEKORAZIOA, ETXETRESNAK ALTZARIAK, BURDINDEGIA...

BELAR S.A.
ARANBURU ALTZARIAK
EURODENDA
BERRERABILI

LIBURUDENDAK, INFORMATIKA, BITXI DENDAK, DISEINUA, ARGAZKIAK...

2KODE INFORMATIKA
HARITZA LIBURUDENDA
HIRUKAR
URZAI
ARANBURU BITXITEGIA
SUA BITXITEGIA
JABIER EROSTARBE ESTUDIO GRAFIKOA
ORPIX IKUS-ENTZUNEZKOAK

ILEAPAINDEGIAK, ESTETIKA...

ADELA ILEAPAINDEGIA
AGURTZANE ILEAPAINDEGIA
DOR ESTETIKA ZENTROA
GUZTIZ EDER ESTETIKA ZENTROA
LAMIAK
SESIÑENA ILEAPAINDEGIA
XAMAR ESTETIKA ZENTROA



Bereizgarri hau izango dute parte hartzen duten denda eta zerbitzuek

OSASUN ZERBITZUAK

AMAIA D. MONASTERIOGUREN DIETETIKA
AMALUR BELARDENDA
BIDEBARRIETA FISIOTERAPIA ZENTROA
MIREN LIZARRALDE FISIOTERAPEUTA
ESKOLATXO DENTISTA
M^o ANGELES MENDIZABAL AHO SENDAGILEA
ARKAUZ OPTIKA
ITZIAR OPTIKA
PLAZAOLA OPTIKA
MIMAU ALBAITARITZA ETA ILEAPAINDEGIA

OSTATU ETA JATETXEAK

GOIKO BENTA OSTATUA
SORALUZE OSTATUA
ALDAPA TABERNA
ALOÑA TABERNA
BIKOITZ JATETXEA
GALICIA TABERNA
GAROA JATETXEA
OLAKUA TABERNA
ZOTZ JATETXEA
ZURRUST JATETXEA

INDUSTRIA, ERAIKUNTZA ETA AUXILIARRAK

ARGI ELEKTRIZITATEA
TXANTXIKU ELEKTRIZITATEA
BELOKI ITURGINTZA
BARUE INTERIORISMOA
MUÑOZ MARGOAK
TOMAS GEZALAGA MARGOAK

MOTORRA

AMETS (FORD)
BEREZAO (OPEL)
OÑATI GARAJEA

Gazte taldeentzako dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Kultur sormena eta hedapenerako laguntzak dira

Herriko irabazi asmorik gabeko gazte taldeek 2014. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauari dirulaguntzak emateko bigarren deialdia egin du Udalak.

Martxoan egin zen aurreneko deialdian 2.600 euro banatu zituen Udalak, eta 7.400 euro geratu ziren eman gabe. Beraz, aurrekontuan dotazioa dagoela kontuan hartuz, udaleko Gazteria sailak bigarren deialdia egitea erabaki du. Laguntzak eskatu ahal izateko nahikoa da talde eskatzailearen erdiak edota banakako eskatzaileak 12-30 urte bitartekoak izatea, eta Oñatin errolatuta egotea.

Eskaerak Gaztelekuan edo udaletxean aurkeztu behar dira **urriaren 24a** baino lehen.

Kutxa banku-fundazio ez bihurtzeko eskatu du Udalak

Gipuzkoako Kutxa banku-fundazio bihur ez dadin, Foru Aldundiak proposatu duen akzioen eskualdatze prozesua martxan jartzeko eskatu dio udalbatzak Kutxako batzarrari.

Bilduren botoekin onartutako mozioak dio(EAJk aurka bozkatu zuen) Kutxak sorrerako funtzio publiko eta sozialari eutsi behar diola, economía errearen mesedetan eta herrialdean izan daitezkeen behar ekonomikoa eta sozialen aldeko inbertsioak eginez. Bilduren ustez, Kutxabanken ildo ez da hori, eta orain, kutxak banku-fundazio bihurtzeko hautuarekin, kontrol publiko eta soziala murriztuko da eta pribatizazioaren bideari ateak irekiko zaizkio, funtzio publiko eta soziala behin betiko desagerraraziz.

Batzokian egindako pintadak salatu ditu EAJk

Irailaren 24an batzokian agertutako pintadak gaitzetsi ditu EAJ-PNVk, Ezker Abertzalearen tolerantzia gabeziaren beste adibide bat dela esanez. "Ezer gutxi egiten ari dira normalizazio politikoaren eta elkarbizitzaren alde". Pintada egileei aurpegia emateko eskatu die EAJk, eta Oñatiko udalari ekintza hauek kondenatzeko. Alderdi jeltzaleak oñatiarren arteko elkarbizitzaren aldeko eta normalizazio politikoaren aldeko apustua egiten jarraitzeko konpromisoa agertu du.



San Martingo baratza publikoen araudia onartu du udalbatzak

Udalak San Martinen egokituko dituen aisialdiko ortuen erabilera arautuko duen ordenantza onartu du behin behineko izaeraz eta urriaren 20ra arteko epea dago alegazioak aurkeztueko. Udal bulegoetan eska daiteke araudia. Gero, erregelamendua behin betiko izaeraz onartu ondoren, izena emateko epea eta zozketarako eguna finkatuko dira.

Araudiak dioenez, baratzeen zozketan parte hartu ahal izateko baldintzen artean, deialdia egin aurreko sei hilabeteetan, gutxienez, Oñatin errolatuta egotea eta bertan bizitzea eskatuko da. Gero, ortuen onradunek, 70€-ko kuota ordaindu beharko dute urtero, eta beste 70€ko fidantza bat. Lursailen erabilera urtebeterako lagako du Udalak, eta epe hori urte urte luzatu ahal izango da, bost urtera arte gehienez.

EAJren ekarpenak

EAJk hainbat ekarpen egin zizkion gobernu taldeak aurkeztutako araudi proposamenari, eta guztiak onartuak izan ziren. Besteak beste, baratza publikoen eredu gehiegi ez hedatzea eskatu zuen EAJk, merkatuan beren produktuak saltzen dituzten taldeei eta baseritarrei kalterik ez egiteko.

Ureztapenari dagokionez, euri uren erabilera lehentasuna ematea, eta ur kontsumoa kontrolatu ahal izateko kontagailu sistemaren bat jartzea proposatu zuen

Bestalde, jeltzaleek proposatu zuten ongarri bezala Oñatiko konposta-guneetan sortutako konpostaren erabilera lehenestea, aurrez behar diren analisiak eginda, konpost hori elikadura esparruan erabil daitekeela bermatzeko.

Azkenik, baratza parkeko erabiltzaileek sortu beharko duten elkarrekin erabakietan partehartze handiagoa izatea eskatu zuen EAJk, bitartekaritza funtzioa egitera mugatu barik.

Ur hoditeria berritzen ari dira Olakuan

Ur edangarriaren hoditeria nagusia berritzen ari dira Olakua auzoko behe aldean, 1 eta 9 zenbakidun etxe atarien inguruan. Hoditeria nagusia zaharkituta dago gune horretan eta, beraz, fibrozementuzko hodi zaharrak kendu eta polietilenoazko berriak jartzen ari dira, ur ihesiak eta bestelako arazoak ekidin asmoz. Orain arte, 1-6 zenbakien arteko hodia aldatu dute, eta datozen asteetan 7 zenbakitik 9ra doana berrituko dute. Ustekaberik ez bada, urriaren amaierarako bukatuko dituzte lanak.



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarrekin administrazioa
- Konponketa orokorrak

GAKO
Garbitasunaren osasuna

653 70 45 47
Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ERORKETAK prebenitzeko tailerra pertsona NAGUSIENTZAT

Erorketak arrisku faktore inportanteak dira adin batetik aurrerako pertsonentzat, askotan ondorio larriak eragiten dituztelako, ez bakarrik fisikoak, baita psikologiko eta sozioekonomikoak ere. Pertsonen osasun fisiko eta psikikoa gainbeheran hasten da, eta heriotza bera ere azkartu dezakete.

Beraz, arazoaren garrantzia kontuan hartuz, erorketak prebenitzeko tailerra antolatu dute Debagoieneko osasun arduradunek, 65 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta. Bi saio izango ditu tailerrak: urriaren 28an eta 30ean. Santa Ana aretoan izango dira biak, ordu eta erdi ingurukoak (17:00-18:30).

Juanjo Sagarzazu medikuak eta Oñatiko osasun zentroko izenarekin gidatuko dute tailerra. Gainera, udaleko gizarte



Bi saio izango ditu tailerrak, urriaren 28 eta 30ean. Aurrez izena eman behar da osasun zentroan urriaren 22a baino lehen

zerbitzuetako eta kirol saileko teknikariek ere parte hartuko dute, eta baita Oier Irizar fisioterapeutak ere.

Erorketak zergatik gertatzen diren, eta hauek prebenitzeko har daitezkeen neurriak azalduko dituzte. Bizimodu osasuntsua eta ariketa fisikoa egitearen garrantzia ere azpimarratuko dute, erorketak ekidin edota erorketa baten ondorioak arintzeko. Bestalde, erorketa kasuetarako dauden laguntza teknikoak (teleasistentzia zerbitzua...) ere azalduko dira bertan.

Tailerra dohainik da, baina aurrez izena eman behar da urriaren 22a baino lehen, Oñatiko osasun zentroan.

FORMAZIOA

Adineko pertsonak zaintzeko ikastaroa

Laister profesional ziurtagiria beharko da adinekoak eta behar bereziak dituzten pertsonen zaintzan lana egiteko. Hori dela eta, Udalak 'Etxez etxeko zerbitzua' izeneko ikastaroa antolatu du, langabetuei edota arlo horretan lanean ari diren pertsoneri zuzenduta.

120 orduko ikastaroa da, urriaren 20tik azaroaren 28ra. Eskolak goizez (8:30-12:30) izango dira, Zubillagako Olaburu zentroan. Plaza mugatuak dira; gehienez 20 ikasle. Udal Enplegu zerbitzuan, (Bidebarrieta 12, - 943037700) eman behar da izena urriaren 18a baino lehen.

Poltsa konpostagarrien salmenta puntuak gehitu egingo dira

Poltsa konpostagarrien erabiltzaileei zerbitzu hobea eskaintzeko, hauen salmenta puntuak gehitzeko asmoa du Udalak. Hori dela eta, herriko edozein saltokik poltsa konpostagarriak saltzeko interesa agertzen badu, Debagoieneko Mankomunitateak salduko dizkio.

Poltsa hauek *Ok compost* marka eduki behar dute baliagarriak izateko. Eskerak egiteko edo informazio gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan Hondakinen Kudeaketa Bulegoarekin. Oraingoz, honako saltokietan eskura daitezke poltsak:

- Hondakinen Informazio Bulegoa (kale zaharra, 14)
- Hondakinen Bulego Ibiltaria (Olakuako dorrea, hileko lehen eta hirugarren astelehenetan)
- San Migel Kooperatibian (Kale Barria, 8)
- Errekalde autio-zerbitzua (Errekalde, 28)
- San Lorentzo frutadenda (San Lorentzo, 18)



Saltokiren batek poltsa konpostagarriak saldu nahi baditu, jar dadila harremanetan Hondakinen Informazio Bulegoarekin

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

S distira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorentzo 4-behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

HONDAKIN BILKETA ZERBITZUA

Larrialdi guneak erabiltzeko **TELEFONO BIDEZKO** sarbidea egokitu du Udalak

Orain arte udaltzaingoa eskatu behar izaten zen giltza, ETEO edo Garagaltzako larrialdi guneak erabili ahal izateko. Hemendik aurrera, berriz, udaltzaingora joan barik, telefonoz deituta lortu ahal izango dugu larrialdi gunera sartzeko gako edo klabea.

Horretarako 943 252 288 telefono zenbakira deitu behar da. Loku-zioak esaten duena jarraitu eta 4 digitoko zenbaki bat emango digu. Zenbaki horrekin 24 ordutan erabili ahal izango da larrialdi gunea, bai Garagaltzako eta bai ETEOkoa.

943 252 288

zenbakira deitu behar da sarrerako klabea eskuratzeko



ETEO eta Garagaltzako ekarpen guneak



Lehen sektorea bultzatzeko dirulaguntzak emateko oinarriak onartu ditu Udalak

Nekazaritzako ustialekuak **modernizatzeko** dirulaguntza deialdia egin du

Lehen sektoreko aktibitateei laguntzeko asmoz, nekazaritzako ustialekuak modernizatzeko laguntzak emateko oinarri-arauak onartu ditu Udalak.

Dirulaguntza hauek jasotzeko baldintzetako bat da, 65 urte bete gabe izatea. Gainera, onuradunek behar adinako lanbide prestakuntza edo eskarmentua kreditatu beharko dute. Ustialekuaren helbide fiskala Oñatin egon beharko da, eta sanitate, abere ongizate eta ingurumeneko araudia bete beharko du.

LAGUNDU DAITEZKEEN INBERTSIOAK

Subentziona daitezkeen inbertsioak honako xede hauetarako izango dira:

1. Nekazaritza eta abeltzaintza ustialekuetaako nabeak eraikitzea.
2. Nekazaritza makineria eta ekipoen erosketa.
3. Baratzegintza eta lorezaintza intentsiborako instalazioak: tunelak, berotegiak, ureztatze eta berokuntza instalazioak, atorrak, eltxoen kontrako sareak, teknologia hobekuntzak...
4. Arkitektoen eta ingeniariaren ordain-sariak.

Dirulaguntzaren zenbtekoa, egingo den inbertsioaren %35-%25 artean egongo da. Hala ere, 40 urtetik beherako nekazarien kasuan, eta kalitate ziurtagiria edo ekoizpen ekologikoko ziurtagiria lortzera zuzendutako inbertsioetan, laguntzak %20ra arte handituko dira.

Eskaera bakoitzak gehienez 4.000 euroko laguntza jasoko du urtean.

Dirulaguntza eskaerak **azaroaren 31 baino lehen** aurkeztu behar dira udal erregistroan,

BESTE LAGUNTZA BATZUK

Lehen sektorea bultzatzeko beste dirulaguntza batzuk ere ematen ditu Udalak. Alde batetik, **produktuak merkaturatzeko** laguntza ematen du, eta, hala, larunbateroko azokara produktuak eramaten dituzten baserriarrek 50€-ko laguntza jasotzen dute larunbat bakoitzeko.

Kontsumo taldeen kasuan, kontzientziazio kanpainak egin eta lokaletan inbertsioak egiteko laguntzak ere eska ditzakete.

Bestalde, nekazaritzarako erabiltzen den ur kontsumoaren kostearen %50-eko laguntza ematen du udalak.

LANDA BIDEAK hormigoitzeko laguntzak emango ditu Udalak

Baserri auzoetako bideak hormigoitzen ahalegin handia egin du Udalak urteetan, baina oraindik badira etxerako sarrera zolatu agbe duten zenbait baserri. Horiei begira, landa bideak egin edo hobetzeko inbertsioetarako dirulaguntza deialdia egin du Udalak.

Hormigoitu gabeko bidean inbertsioa egiten duten partikularrek eskuratu ahal izango dute dirulaguntza. Materialen erosketa eta garraio gastuetarako izango da laguntza; eskulanaren kostua ez da diruz lagunduko.

Aurten 34.000 euroko diru-atala du Udalak xede honetarako, eta gehienez bi lan finantziatuko ditu urtean. Dirulaguntzak emateko bi irizpide zehaztu ditu: baserriaren nekazal jarduera batetik, eta baserriatik herrigunera dagoen distantzia, bestetik.

Udal bulegoetan egin behar dira eskaera, **urriaren 27a baino lehen**.

EUSKARA, añubea eta eguzkibegixa

Hizkuntza
zapalkuntzaren
historia


- ▶ Euskarak eta euskal hiztunek jasandako **errepresioa** erakusten duen ikuskizuna estreinatuko da Oñatin urriaren 31n.
- ▶ 'Euskara, ospeletik eguterara' dokumentalaren moldaketa da; antzerkia, dantza, musika eta bideoa uztartzen dituen **ikuskizun multimedia**.



Garai batean ohikoa izaten zen euskaraz hitz egiten zuten ikasleak zigortzea

Bernat Alberdik eta Oñatiko Euskal Memoria Taldeko kideek prestatu dute ikuskizuna, herriko zine, musika, dantza eta diseinu arloko hainbat sortzailearen laguntzarekin

Bernat Alberdik egin zuen 'Euskara, ospeletik eguterara' dokumentala



Oñatiko Euskal Memoria Taldearen ekimenez 'EUSKARA, AÑUBEA ETA EGUZKIBEGIXA' izeneko ikuskizuna estreinatuko da gure herrian urriaren 31n (Santa Ana aretoa, 22:00). Euskarak eta euskal hiztunek azken mendean, bereziki, jasan behar izan duten jazarpena eta zapalkuntza erakusten du; euskaraz bizi nahi zuten euskaldunei jarri izan zaizkien oztopo, presio, debeku eta zigorrak.

Duela bi urte ekin zion Euskal Memoria Fundazioak hizkuntza zapalkuntzaren gaia lantzeari. Euskararen kontrako jazarpenaren lekuko izan diren hainbat eta hainbat herritarren testigantzak jaso zituen Euskal Herri osoan zehar, eta informazio horrekin *Euskararen kate hautsiak* liburua plazaratu zuen iazko abenduan

Liburu horretan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak *Euskara, ospeletik eguterara* izeneko erakusketa ibiltaria eta izen bereko dokumentala prestatu ditu. Hain zuzen ere Bernat Alberdi oñatiarrak zuzendu zuen dokumentala.



ARITZ ARNAIZ
Euskal Memoria Taldekoa

“ Oñatiko eskoletan bizi izan zen jazarpenaren lekukotasunak eta bizipenak ere bildu ditugu

DOKUMENTALA OHOLTZA GAINERA

Gipuzkoako hainbat herritan egon ostean, *Euskara, ospeletik eguterara* erakusketa Oñatira iritsiko da urriaren 27an. Hori dela eta, Bernat Alberdik eta Oñatiko Memoria Taldekoek pentsatu dute polita izango zela ikuskizun bat prestatzea, dokumentala oholtza gainerako moldatuz. Eta halaxe sortu da *Euskara, añubea eta eguzkibegixa* izeneko ikuskizun multimedia, antzerkia, dantza, musika eta bideoa uztartzen dituen.

Alberdik berak prestatu du gidioa, eta herriko zine, musika eta diseinu arloko sortzaileekin batera prestatu du ikuskizuna, Oñatiko Euskal Memoria taldekoen laguntzarekin.


Xabier Amuriza eta Maialen Lujanbio bertsoariak, Joseba Irazoki eta Ander Etxaniz musikariak, Oñatzeko dantzariak, Ganbara Abesbatzak, txalapartariak eta beste hainbatek parte hartzen dute ikuskizunean. Tartean, Oñatiko Memoria Taldeak jasotako hainbat herritarren bizipenak eta testigantzak ere entzun ahal izango ditugu.

Sarrerak Txokolateixan salduko dira urriaren 13tik aurrera 5 eurotan

Oñatiarren testigantzak

JOXE MARI KORTABARRIA ETA JULI GURIDI

Euskararen egoera Sarramendiko auzo-eskolan



Euskaraz hitz egiteagatik zigorra jasotzen zuten: inguruko baso-etan sutarako abarrak batu.

Beste arau zorrotz bat ere bazuten: etxetik eskolarako bidean, maisuak izendatutako puntu batetik aurrera (txabola bat, erromara bat, bidegurutze bat...) debekatuta zegoen euskaraz egitea.

JOAKIN EZPELETA

Zañartuko eta kaleko eskolako bizipenak

Gerra ostetxoan egurrezko fusil moduko bat bizkarrean hartuta instrukzioa egiten zuten eskola inguruan, mojak "uno, dos..." ohikutzan zutelarik. Gero, Maristekin, egunaren amaieran eraztunarekin gelditzen zenak 20 minutuz hormari begira egin behar zuten, eta hurrengo egunerako 500 aldiz idatzi 'No hablaré más en vasco'



JOSE URZELAI

Madalenako eskolako kontuak



Gerra ondoren egoera gogortu egin zen. Eraztunarekin amaitzen zuen ikaslea makilarekin jotzen zuen irakasleak. Maisua oso monarkikoa zen eta egunero *Cara al sol* abestu behar izaten zuten

ANA MARI ZUMALDE

Euskararen egoera Araotz auzoan, 50. hamarkadan



Maistrak kanpotarrak zirenez euskaraz ez zuten ezer ulertzen, eta haurrek alderantziz. Hala, hainbat anekdota bizi izan zituzten. Behin, aitari behia idiskoarengana eramaten lagundu behar, eta eskolara ez joateagatik maistrak azalpenak eskatzean. "en idisko" erantzun zion Ana Mari. Maistrak, besteren bati galdetuta, idisko-kontuak zer zen jakin zuenean, zera esan omen zuten: "qué cosas tienen que ver estas niñas...".

Beste behin, honela esan zion maistrak Ana Mariri. "Este chapurriau que hablais no os vale ni para llegar a Urteagain". Aitarengana jo zuten minduta, eta haxe erantzun zion: "zeuena ondo gorde eta besteena ikasi".

Euskaraz hitz egiteagatik jasotako zigorretako bat maistraren sukaldea garbitzea izaten zen.

GURUTZ JAUSORO

Uribarriko auzo-eskolako kontuak



Gurutzen aita, Felipe, Uribarriko eskolako maisua izan zen. Bera hasi arte, eskolak gaztelaniaz ematen ziren, eta Feliperen ahaleginari esker, euskarak gero eta pisu handiagoa hartu zuen. Euskal Herriko mapa ere jarri zuten eskolan, baina 1926an Foru Aldundiko ikuskatzaile batek mapa kentzeko agindua eman zuen. Ondorengo urteetan ere, Feliperen joera nazionalista eta euskaltzalea salatzen zuen ikuskatzaileak bere txostenetan. Gerra hasi zenean Felipek ihes egin behar izan zuen, eta 1942an itzuli zenean, alkateak debekatu egin zion irakasle lanetan jardutea, ez Uribarrin eta ez beste inon.

ERAKUSKETA • URRIAK 27-AZAROAK 9

'EUSKARA, OSPELETIK EGUTERARA. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria'

Urriaren 27tik azaroaren 9ra 'Euskara, ospeletik eguterara. Hizkuntza zapalkuntzaren memoria' izeneko erakusketa egongo da ikusgai kultur etxeko erakusketa aretoan, egunero astelehenetik igandera 18:00-20:00.

Hamabi panelen bidez euskarak eta euskal hiztunek azken mendean jasan duten zapalkuntza azaltzen da, garai ezberdinetako lekukotasun, gertakari eta agirien bidez. Eta zapalkuntza horrek utzitako ondorioak ere ikusarazten dira.

Panelekin batera, ikus-entzunezko bat egonog da, eta bertan hainbat herritarren bizipenak eta lekukotasunak entzun ahal izango ditugu.

Hirugarren atal bat ere badu erakusketak, 'Testigantzen soka' izenkoa. Hemen zenbait oñatiarren bizipenak eta lekukotasunak ikusi ahal izango ditugu.



IKA-MIZKA • URRIAK 30

Euskararen egoerari buruzko MAHAINGURUA



Ika-mika eta zizka-mizka kontzeptuen arteko nahasketa da Ika-mizka. Euskal herrian kontu garrantzitsuak mahaiaren inguruan eta jatekoaz lagunduta konpontzen ditugunez, oraingo honetan ere halaxe izango da. Horregatik saioan mahaiak eta pintxoak egongo dira. Mahai bakoitzeko aurpegi ezagun bat edo bi izango dira eta sei edo zazpi gazte. Euskararen ginetan jardutea eta hausnarketa egitea izango da helburua.

Parte hartzeko gaztezulo.com helbidean eman behar da izena. Hitzaldiak irekiak dira, nahi duenarentzat.

HITZALDIA • AZAROAK 5

'Euskararen gorabeherak Oñatiko eskoletan XX. mendean'



Jerardo Elortzak hitzaldia emango du euskarak Oñatiko eskoletan bizitako gorabeheren inguruan. Oñatin irakaskuntzan euskara erabiltzeko borroka gehien egin duten maisuen gainean egingo du berba, besteak beste: Felipe Jausoro, Miguel Elorza, Benito Larrakoetxea eta Leonardo Guridi



elkarzabal

elkartea eratu da integrazioa sustatzeko

Caritasetik sortutako elkartea da eta dagoeneko bi proiektu jarri ditu abian lana sortzeko: **baratza** eta **joskintza tailerra**

Bitartekorik gabe dauden pertsonen laguntzeko helburuarekin sortu da Elkarzabal elkartea, Jesus Mari Aranburu eta Joxan Larrañaga parrokoaren ekimenez. Lau helburu edo zutabe ditu elkarteak: batetik, elkarteko kideen oinarrizko beharrak asetzea; bestetik, lana lortu ahal izateko proiektuak bultzatzea eta formazioa sustatzea. Eta horren guztiaren atzean dagoen azken helburua da elkarteko kideen integrazioa bideratzea. Dagoeneko bi proiektu jarri dituzte martxan elkarteko kideentzako lana sortzeko helburuarekin: ortua eta joskintza tailerra. Beste proiektu batzuk ere badituzte esku artean. Elkartea zabalik dago lagundu nahi duten herritar guztientzat, eta, bereziki, laguntza beharrean dauden gizon-emakumeentzat. Aranburuk eman dizkigu xehetasun gehiago.

JESUS MARI ARANBURU / Elkarzabalen bultzatzailea

Lanaren eta formazioaren bidez pertsonen integrazioa bideratzea da Elkarzabal elkartearen helburua

Nondik nora sortu da Elkarzabal?

Caritaserara jende asko etortzen da laguntza eske. Gehienak lan eske. Baina, jakina, arlo horretan mugatuta gaude. Gure esku dagoen laguntza (aholkuak, dirua...) ematen diegu, baina lanik ez, noizean behin Bidebarri enpresaren bitartez soluzioaren bat ematen bada ere.

Beraz, arazoari aurre egiten saiatu behar genuela erabaki genuen, elkarte bat sortuz, indarrak batuz, eta denon artean lana sortu ahal izateko proiektuak bultzatuz.

Jatorri, kultura eta erlijio ezberdinetako jendea dago elkartean; eta, jakina, nahi badugu beraiek izatea elkarteko benetako protagonistak, garbi geneukan elkarte independente bat izan behar zela. Beraz, Caritasetik sortua bada ere, eta bere laguntza badu ere, elkarte independentea da, printzipio etiko batzuk oinarri dituena: pertsonen duintasuna, elkartasuna, diskriminaziorik eza, eta gizarte justuago baten aldeko bokazioa.

Lanpostuak sortzea da helburu nagusia?

Lau helburu edo zutabe nagusi ditu elkarteak: batetik, gizarte ongizatea; hau da, elkarteko kideen oinarrizko beharrak asetzea (arlotan Susana Altuna abokatuaren laguntza dugu); bigarren helburua da elkarteko kideek lana lortu ahal izateko ekimenak sustatzea, eta hirugarrena, formazioa sustatzea. Eta horren guztiaren atzean dagoen azken helburua da elkarteko kideen integrazioa bultzatzea.

Etorkinei zuzendutako elkartea da?

Ez. Oñatiko jendeak ere ateak zabalik ditu. Kontua da, Caritaserara batez ere kanpoko jendea etortzen dela laguntza eske, eta beraiekin dugu harreman zuzena. Bertako jendeari gehiago kostatzen zaio etortzea.

Baratz ekologikoa



Ortua da Elkarzabal elkarteak abian jarri duen lehenengo proiektua. 1.500m²-ko lursaila prestatu dute auzolanean, eta orain bertako uztari irteera ematea da helburua. Larunbat goizetan saltzen dituzte barazkiak Oñatiko eta Bergarako azoketan. Produktu freskoak edo kontserban saltzen dituzte, Jakion enpresan egindakoak. Herriko saltoki eta jatetxe batzuetara ere eramaten dituzte barazkiak. Udazken-negura begira beste ortu sail bat prestatzeko asmoa dute eta aurrerago oilategia jartzeko asmotan dira. Harremanetarako: 672.133.800



Joskintza tailerra

Elkarzabal elkarteko kideetako batek esperientzia luzea du joskintza lanetan eta, beraz, jostura tailer bat martxan jartzea erabaki dute Caritasen lokaletan, eta bi pertsona hasi dira bertan lanean. Era guztietako erropa konponketak (frakabarrenak hartu, kremaileak konpondu...) eta kurtinak ere egiten dituzte, eta baita tapizeria lanak ere. Maricela dominikarra da bertako arduraduna, eta edozein enkargutarako deitu ondorengo telefonora: **632.015.903**

Hasteko, ortu bat jarri duzue martxan.
Bai, Martoluen familia utzitako lursail bat (1.500 m²) prestatu dugu Lezesarri auzoan; tomate, leka, letxuga, zerba, kalabazina... landatu ditugu. Lan asko egin dugu, ortua bete-beteta daukagu, eta orain horri etekina ateratzen asmatu behar dugu. Larunbatetan Oñati eta Bergarako azokan saltzen ditugu, eta herriko denda eta jatetxe batzuetan ere bai. Kontserbak egiten ere hasi gara Jakion-en bidez.

Oilategia ere jarri nahi duzue, ezta?
Bai, ortuaren aldameneko lursailan jarri nahi genuen, baina inbertsio handi samarra eskatzen zuen. Furgoneta txiki bat behar genuen, derrigorrez, eta, beraz, momentuz alde batera utzi dugu oilategia, eta neguko ortua prestatuko dugu bertan.

Joskintza tailer bat ere jarri duzue abian.
Bai, elkarteko kide batzuek esperientzia dute joskin lanetan eta, beraz, tailertxo bat jarri dugu Caritasen lokaletan. Hiru emakume hasi dira bertan lanean.

Beste proiekturik ba al duzue esku artean?
Bai. Labanderia bat, bigarren eskuko erropen salmenta, arabierako eskolak... Baditugu ideiak, baina orain arte oso zentratuta egon gara ortua ateratzen. Gainera, inbertsioak egiteko ahalmen txikia dugu; orain arte Caritasek lagundu digu, baina horrek ere bere muga du. Fiare banku etikoarekin harremanetan ere bagaude, eta, beharbada, hortik finantziarioa lortu ahal izango dugu proiektu batzuk abian jartzeko. Bestalde, formazioarekin lotuz, eztabaida foro bat sortzeko asmoa ere aztertzen ari gara elkartean.

Mondragon Unibertsitatearekin ere ari zarete elkar lanean, ezta?

Bai, zehazki LEINN gradu-ko ikasleekin. Hauek enpresa ekimenak sortu behar izaten dituzte beraien formazio prozesuan, eta, jakina, gureta-ko oso interesgarria da. Laguntzeko prest daude, bai aholkularitza mailan, eta, beharbada, gure jendea kontuan hartuz beraien proiektuetarako.



Gipuzkoako 600 jubilatu batuko dira Oñatin

GIPUZKOAKO JUBILATUEN IBILALDIA

egingo da Oñatin, urriaren 25ean



1997an ere Oñatin egin zen Gipuzkoako Jubilatuen ibilaldia

► **Gipuzkoako 73 jubilatu elkarteetako zortzina ordezkari etorriko dira**

► **9 kilometroko ibilaldia egingo dute herrian zehar: Foruen enparantza, Bidaurreta, San Martin, Asentzio, Kale Barria, Unibertsitatea, Torreauzo, Kale Zaharra, Foru enparantza**

 <p>Almaraz Inmobiliari gestioa</p> <p>Tel.: 679411444 www.almaraz.info</p>	<p>Carmelo Pérez de Almaraz</p> <p>"Gim bezeren eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabiloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei jezaguzu",</p>
---	--

Jubilatuen marea laranja batek zeharkatuko ditu Oñatiko kale eta auzuneak urriaren 25ean. Gipuzkoako Jubilatuen Ibilaldia egingo da egun horretan Oñatin, eta herrialdean dauden 73 jubilatu elkarteetako zortzina ordezkari etorriko dira. Beraz, 600 bat gizon-emakume ibiliko dira Oñatiko kale eta auzuneetan barrena, kamiseta laranja bat jantzita/soinean.

Urtero egiten da Gipuzkoako Jubilatuen Ibilaldia herri ezberdinetan. Oñatin 1997an izan zen azkena, eta aurten berriro antolatzea erabaki du Pake Leku elkarteak, Gipuzkoako elkargoarekin batera.

OÑATIKO EDERTASUNA ERAKUTSI

Antolakuntza lanetan murgilduta dabilta Pake Leku elkarteak kideak eta, dagoeneko, ibilbidea zein izango den zehaztu dute. Foru enparantzaren hasita, Bidaurreta, Olakua, San Martin, Asentzio, Kale Barria, Unibertsitatea, Torreauzo, Kale Zaharra ibilbidea egingo dute. 9 kilometro guztira.

"Ibilaldi polita dela uste dugu" adierazi digu Pake Lekuko lehendakari Jose Mari Igartuak. "Oñatiko txokorik ederreneretako batzuk ezagutzera ematea da gure helburua, gero berriro ere Oñatira bisitan etor daitezten".

600 laguneko taldea izanik, zenbait lekutan (Asentzio aldean, bidegorrian...) bide osoa hartuko dute, eta litekeena da trafikoa eten behar izatea momentu batzuetan; "denbora gutxiko etenak izango dira eta, beraz pazientzia pittin bat eta herritarren kolaborazioa eskatzen dugu" adierazi digu Igartuak.

Goizeko 11etan hasiko da ibilaldia, Gipuzkoako Jubilatuen Elkarteak lehendakari José Riviere eta Mikel Biain alkatearen ongietorria entzun ostean. Ibilaldiaren erdian, unibertsitatean, mokadutxoak izango dute partehartzaileak, eta amaieran, Foruen enparantzaren, Oñatin ekoiztutako produktuak (txokolatea, txakolia, gazta...) erosteko aukera izango dute. Eguna borobiltzeko, ibilaldia osatzen duten guztiak Zubikoa kiroldegian bazkalduko dute elkarrekin.

HITZALDIA URRIAK 21

'Cuidado del cuidador/a'

Ezinduk edota adineko pertsonak zaintzen dituzten gizon-emakumeentzat ere beharrezkoa da beren burua zaintzea. Horren inguruko hitzaldia egongo da Pake Leku elkartearen urriaren 21ean (17:30) jubilatuen elkartearen bertan

BIDAIA URRIAK 27

Gernikako azokara

Pake Leku elkarteak egun bateko irteera antolatu du Gernikara urriaren 27rako. Urriko azken asteleheneko azoka entzutetsua ikusi ondoren, Kortezubin bazkalduko dute festa giroan. Izen-emateko egunak, urriak 7 eta 8.



Presoen eskubideen aldeko SARE herri mugimendua abian da Oñatin

"Sortu berri den SARE mugimenduaren espirituari eta nahiei jarraituz, Oñatiko herritar talde batek I. Herritarren Topaketa antolatu zuen irailaren 6an, ETEO zaharrean. Elkar lotuta dauden bi helburu nagusi hauei begira egin ziren topaketak: batetik, Oñatiko SARE mugimendua piztea eta, bestetik, bertaratutakoekin irudikatzea herri mugimendu berriaren izaera eta antolaketa. Berrogeita hamar lagun inguru elkartu ziren bertan. Dinamika ezberdinak erabiliz, antolatzaileek luzatutako hiru galdera nagusien bueltan egon ziren solasean, talde txikietan antolatuta. Giro atseginean eman zuten goiza bertaratutakoek, mugimenduari euskarria eman eta parte hartzeko borondatea eta nahia ere adieraziz. Egoitz Aizpururen gidaritzapean osatu zuten elkarrekin bertso eder bat bilkurari amaiera emanez. Antolatzaileek topaketan egin eta esandakoak bilzen ari dira dokumentu batean bertaratutakoek eta herriari zabaltzeko asmoz. Oñatiko SAREaren lehen perretxikoa, beraz."

ZIKOINA BELTZA OÑATIN

Ezohikoa den ikuskizuna izan dugu iraileko azken egun hauetan Oñatin. Izan ere, zikoina beltz gazte dotore bat gure herrira etorri da bere hegoalderako migrazioari jarraituz eta egun batzuk bertan egin ditu.

Zikoina hauek zikoina zuri edo arrunta baino urriagoak dira eta gizakiarengandik urruntzea da bere joera ohikoa. Harkaiztegi eta erreka ertzetako baso bakartietan egiten dituzte habiak eta leku lasaiak aukeratzen dituzte bizitzeko. Honela, gurean bere bidaia luzean deskantsua hartzera gelditu dela pentsa dezakegu eta benetan opari ezin ederragoa egin digu oñatiar guztioi. Bidaia ona izan dezala Sahara hegoalderaino!

Oñatiko Natur Eskola



HERMANSOLOÑAK 33. edukiontzia bidali du Argentinara

Irailaren 16an irten zen Argentinaruntz Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak osatu duen 33. laguntza kontainerra. Ohi bezala, Ulman bete zuten kontainerra, eta irailaren 28an irteteko zen Bilboko portutik. Arropak, oinetakoak, jostailuak, eskolarako materiala eta pinturak bidali dituzte besteak beste. Ohi bezala, Oñatirekin anaitutako Jose C. Paz hirira iritsiko da kontainerra, eta handik banatuko dute premia handia duten lekuetara.

Hermansoloñak eskerrak eman nahi dizkie beste behin herritar guztiei, Udalari, Ulmari eta Hermansoloña taldean bertan nahiz Argentinan lanean diharduten guztiei.

Julian Sagastaren omenezko seilua atera du Oñatiko CECA taldeak

Martxoaren 16an bete zen Julian Sagasta Galdos (Arrasate, 1914 - Roma, 2005) organojole handiaren jaiotzaren mendeurrena. Arrasaten jaioa bazen ere, Sagastak lotura handia izan zuen Oñatirekin. Ama hemengoa zuen eta, gainera, 10 urte zituela Oñatiko Agustinoen seminariara etorri zen, eta bertan egin zituen musikako lehen ikasketak. Gero, 18 urterekin Erromara destinatu zuten, eta bertan eman zuen ia bizitza osoa. Musikan sakontzeko aukera izan zuen, goi mailako organojole bihurtzeraino. Ekainean Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Ugartek idatzitako Sagastaren biografia-liburua aurkeztu zen, eta orain Oñatiko Filatelia eta Numismatika taldeak haren omenezko seilua plazaratu du. Turismo bulegoan eskura daitezke 1,50 eurotan.





AITA BEDITA LARRAKOETXEA

Oñatin nahiz erbestean euskaltzale

Oñatiko euskaltegiari izena
ematen dion agustindarraren
bizitza argitaratu dute
Bidegileak sailean

Urriaren 23an aurkeztuko dute
liburua udal euskaltegian (18:30
Larraoetxearen bizitza eta
lanari buruzko hitzaldi batekin

Oñatiko udal euskaltegiari izena ematen badio ere, askok beharbada, ez dute jakingo nor izan zen Aita Bedita (Benito) Larraoetxea Agirrezabala (Zeanuri, 1894 - Oñati, 1990). Euskalgintzan aintzindari izandako pertsoneri eskainitako Jaurilaritzaren 'BIDEGILEAK' bilduman argitaratu berri dute haren biografia, eta geuk ere gogoratu nahi izan dugu nor zen Arratia bailaratik Oñatira etorritako agustindar euskaltzale hura.

Zeanuriko (Bizkaia) Undurraga auzoko Altxagutxi baserrian sortua, Altsasura (Nafarroa) joan zen oso gazterik Agustindar Laterandarren elkartean sartzeko asmoz. Han bi urte egin ondoren, Oñatiko komentuan osatu zituen apaiz ikasketak, eta 1917an abadetu zen Gasteizen.

Irakasle agiria ere lortu zuen Iruñean, eta berehala heldu zion irakaskuntzari, Oñatiko agustindarren komentuan aurrena, eta herriko ikastetxe publikoan ondoren, zortzi urtez, 1928-1936 artean. Ordu arte, 25 urtez, herriko mutiko gehien irakasle lanetan jardun zuten fraide maristek Oñatitik alde egin zutenean, agustindarrak egin ziren Herri Eskolaren kargu, Udalak hala eskatuta. Bedita Larraoetxea izendatu zuten zuzendari.

Ohiko eskolez gain, 'Gau-Eskolak' ere antolatu zituen Larraoetxeak, egunehar fabrika edo baserriko lanetan jardun behar izaten zuten herritarrei alfabetatzen laguntzeko. Euskarazko testu-liburuak sortzeari ere ekin zion, eta orduan idatzi zuen, besteak beste, *Oñatiko Lutelestia*, gure herriaren ezaugarri fisikoak, lanbideak eta beste hainbat datu biltzen dituen txostena, lehen mailako ikasleentzat.

Gerra aurreko urteetan gertatu zen euskal

kulturaren piztuerarekin batera, Larraoetxearen euskararekiko sua ere bizituz joan zen. Euskal Herri euskalduna zuen amets, euskaraz baliatzen zena bere zeregin guztietarako. Euskarazko lan batzuk argitaratu zituen, *Euskal Esnalea* eta *Jakintza* aldizkarietan, besteak beste, eta 1935ean 'Kirikiño' saria irabazi zuen.

Erbestera ihesi

1936ko gerra zibilak etena ekarri zuen Aita Larraoetxearen bizitzara. Irailaren 21ean sartu ziren Oñatin matxinatuak, eta Udaleko agintari berriek hartu zuten lehenengoetako erabakien artean Larraoetxea eta beste eskola-maisu batzuk euren karguetatik kentzea izan zen. Ezin zuten jasan, nonbait, aurreko urteetan nagusitzen ari zen giro euskaltzalea.

Ordurako Larraoetxea Bizkaia aldera joana zen, eta 1937ko udaberrian Britania Handira joan zen, haur euskaldun erbesteratuei laguntzera.

Bi urte pasatxo egin zituen Ingalaterran. Bere nagusiek eskatuta, 1939ko udazkenean Ameriketarako bidea hartu zuen, laterandarren etxeak sendotzeko helburuarekin. Uruguain urte eta erdi eman ondoren, Argentinako Salta hirira bidali zuten, eta hantxe bizi izan zen hogeita hamar bat urtez, Belgrano ikastetxean eskolak ematen, baina Euskal Herria beti gogoan, eta, ahal zuen neurrian, han ere euskara landuz. *Erein* Oñatiko laterandarren aldizkarirako zenbait lan bidali zituen Argentinatik.



Shakespeareren antzerki lan guztiak euskaratu zituen Larraoetxeak

Shakespeare euskaraz

1954an itzuli zen aurrenekoz Euskal Herrira, pozez gainezka. Hala ere, euskara kinka larrian zegoela ikusita, erabaki sendoa hartu zuen bere esku zegoena egiteko. Eta, hala, berriro Ameriketara bueltatu zenean, *William Shakespeare* idazle britaniar ospetsuaren antzerki-lan guztiak euskaratzeari ekin zion.

Jokin Zaitetik zuzentzen zuen *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratu ziren aurreneko hirurak: *Macbeth* (1957), *Lear Errege* (1958) eta *Ekatxa* (1959). Saltako ikastetxeko lanei utzi gabe, tinko jarraitu zion bere xedeari, eta 1968rako euskaratuak zituen *Shakespeare*-ren 37 antzerki-lanak. Kardaberaz taldekoen eskutik argitaratu ziren lan guztiak 1974 eta 1977 artean, Larrakoetxearen ikasle izan zen Juan Zelaiaren dirulaguntzari esker.

Bizkaieraz eta, zehazki, Arratiako euskaraz daude idatzita lan guztiak. Eta hori da Larrakoetxeari egotzi izan zaiona, alegia, txokokoegia izatea, eta garbizale-egia ere bai, zenbait hitz asmatu egin zituelako, maileguetara ez jotzearren.

Hala ere, ukazina da euskarari egin zion ekarpen handia hiztegi, esaera eta joskera mailan, besteak beste. Euskaltzaindiak ere aitortu zuen Larrakoetxeak euskara goratzeko egindako lana, eta euskaltzain ohorezko izendatu zuen 1979an. Oñatiko Udalak bertako euskaltegiari Bedita Larrakoetxearen izena jartzea erabaki zuen 1988an, irakaskuntzan eta euskararen alde egindako lana eskertuz.

Aita Bedita Larrakoetxea 1972an itzuli zen Argentinatik, eta Oñatiko agustinoen etxean bizi izan zen 1990ean hil zen arte.

Ikasle ohien oroitzapenak

Larrakoetxearen ikasle izan zen Donato Biainekin hitz egiteko aukera izan dugu. Oso mutikoa zen artean eta oroitzapen lausok ditu, baina politik. "Kale Zaharreko 21ean, gaur egun Idigoras altzari denda dagoen lekuan ematen zituizten eskolak agustinoek. Lau ikasgela zeuden bertan. Goizez Aita Fernando Urkiak irakasten zigun geografia, gramatika eta historia. Don Benito Larrakoetxea arratsaldeetan etortzen zen; aljebra, komertzioa eta idazmakina idazten irakasten zigun. Gau-eskolara ere joaten ginen udaletxeko goiko solairura, dibujo ikastera. Irakasle onak ziren agustinoak, baina gerrarekin bukatu zen".



Oñatiko udal eskolako irakasleak 1930 inguruan. Ezkerretik hasita: Juan Elortondo, Fernando Urkia, Karlos Arrizabalaga, Bedita Larrakoetxea eta Frantzisko Madina



1988an Oñatiko Udalak Bedita Larrakoetxeari egindako omenaldiko irudia, Eli Galdos eta Sabin Intxaurre, Oñati eta Zeanuriko alkateak, bertan direla, besteak beste.

Larrakoetxea BIDE GILE

Eusko Jaurlaritzako Kultura sailaren babesean jaiotzen BIDE GILEAK izeneko egitasmoa 1987an, euskararen aldeko lanean nabarmendu diren gizon-emakumeen bizitza eta lana jasotzeko asmoz.

Orduz geroztik, 240 bat biografia argitaratu dira Bidegileak bilduman, Hogeita lau bat orrialdeko liburuskak dira gehienak, erraz irakurtzeko modukoak, horixe baita bildumaren helburua, alegia, euskalgintzan aitzindari izan diren gizon-emakumeen ibilbidea eta lana modu ulergarrian eta erakargarrian zabaltzea. Oñatiko udal liburutegian edo www.euskara.euskadi.net webgunean kontsulta daitezke liburuki guztiak. 2010eko ekainaz geroztik Jerardo Elortza oñatiarra da Bidegileak bildumako zuzendaria.

Orain, beste 11 bidegileren biografiak argitaratu ditu Jaurlaritzak, Larrakoetxearekin batera. Azken hau Paulo Anduaga agustinoak idatzi du. Bidegileak bildumako liburuaren argitalpenaren harira, euskaltegiak hitzaldi bat antolatu du Arratiako agustino euskaltzalearen bizitza eta lanaren inguruan. Urriaren xxean (xx:xx) izango da, euskaltegian bertan. Larrakoetxeak idatzitako Oñatiko *Lutelestia* (geografia) ere ikusgai egongo da bertan.



Txokolateixia

“Txokolatearen usaina berreskuratu nahi dugu”

Orindik ofizialki inauguratu ez badute ere, uztaiaz geroztik zabalik dago Txokolateixa berria Kale Barria 29an. Garai bateko Chocolates Orbea lantegia egon zen lekuan kokatua, txokolategintzak Oñatin izan duen tradizio handia bizirik mantentzen lagunduko du Txokolateixak.

Aspaldiko ametsa zenuen. Lan handia egin duzu Oñatik txokolatearen museoa izan dezan. Gustura emaitzarekin? Oso gustora, bai. Oñatik txokolategintzan izan duen tradizio handia ikusita, merezi eta behar zuen era honetako gune bat, ez galtzeko ondare hori, eta gazteek ezagutzeko Oñatik txokolatearekin izan duen harreman estua.

Zeuren zara bultzatzaile nagusia, baina elkarlanaren emaitza da, ezta?

Bai, duda barik. Alde batetik, Klaxk Oñatiko txokolateruen elkarteko hainbat jenderen laguntza izan dut. Udalari ere eskerrak eman beharrean gaude, lokala eskuratu digulako, eta Natra enpresari ere bai, berak ipintzen baitu produktua.

Zer aurkituko du bisitariak Txokolateixan?

Kakao eta txokolate usaina. Askok esaten digute, garai bateko usaiak ekartzen dizkiela gogora, eta horixe da helburua, Oñatik berezkoa izan duen usain hori berreskuratzea.

Kakaoa zer den, nondik datorren, eta txokolate mota ezberdinak (beltza, esneduna, txuria) nola egiten den erakusten dugu. Argindarra sartu aurreko lantegietan nola egiten zuten ere azaltzen dugu, eta aurreko gizaldian Oñatin izan ziren hamar txokolate lantegiei buruzko informazio ugari dago ikusgai: orduko etiketak, argazkiak, fakturak...

Bisita ordu jakin batzuk daude, ala edonoz joan daiteke ikustera?

Denda orduetan, edozein momentutan

sar daiteke museoa ikustera. Orain, taldetxo bat etorri behar bada, eta azalpenak jaso nahi baditu, hobe aurrez jakinaraztea, gutako norbait bertan egongo dela ziurtatzeko, batez ere. Larunbat arratsaldean edo igande goizean ere izan liteke.

Bisita doan da?

Bai bisita dohanik da, baina amaieran txokolatea erosteko gonbitea egiten zaio jendeari, horixe baita proiektu hau bizirik mantentzeko dugun diru-iturria.

Turistek ere ikasi dute bidea.

Bai, turismo bulegoarekin elkarlanean ari gara, eta gustura gaude. Azken batean, gure ondarearen zati bat da, eskaintza turistikoa osatzera datorrena. Danok gabiltz Oñatiren alde lanean, eta denon mesederako da.

Ikastetxeen bitartez ere antolatu nahi dituzue bisita gidatuak, ezta?

Bai, zentro didaktikoa izatea nahi dugu. Gure herriko historiaren zati bat ezagutzeaz gain, kakaoaren prozesua ezagutu eta txokolatea apreziatzen irakatsi nahi diegu. Lehendik ere hasita gaude ikastetxeekin lanean, baina sakondu egin nahi dugu bide horretan, eta aurrerago tailer praktikoak (kakaoa

txigortu, ixo eta findu, txokolatea urtu...) ere antolatu nahi ditugu.

Interpretazio zentro bizia izatea nahi dugu. Kakaoaren eta Oñatiko txokolatearen historiari erakusteaz gain, gure nahio eta helburua da jendeak txokolatea ikusi, ikutu, usaindu eta dastatzeko aukera izatea.

Zenbat txokolate lantegi egon ziren Oñatin?

XVII. mende bukaerarako agertzen dira txokolatearen inguruko lehenengo testigantza idatziak Oñatin. Garai hartan herriko jauntxo batzuk Espainiako gorte inguruan zebiltzan, eta beraiek ekarriko zuten txokolatea Oñatira, Euskal Herriko beste inora baino askoz lehenago.

XVIII. mende hasierako hainbat agiritan (ezkontza kontratuak, testamentuak...) azaltzen dira txokolatearen inguruko aipamenak. Txokolategintza ofizioa ikasteko lehenengo kontratuak ere ordukoak dira. Urte haietan 40 bat obradore egon ziren Oñatin.

Gero, produkzio industrialari jarri zenean, hamar txokolate lantegi egon ziren: Madina-Txurruka, Arrazola ‘Konfiteruena’, Lukasena, Gereka, Onena, Orbea, Garaikoetxea, Maiztegi, Loyola eta Zahor.

“Denda orduetan edozein momentutan bisita daiteke museoa. Taldetxo bat etorri behar bada, eta azalpenak jaso nahi baditu, hobe aurrez jakinaraztea, gutako bat egongo dela ziurtatzeko. Bisitak doan dira



Anton Azpiazu izan da museoa bultzatzaile nagusia.



Museoa. Historian zehar txokolatea egiteko eta kontsumitzeko erabili izan diren tresnak eta dokumentu ugari dago ikusgai Txokolateixan.



Historia. Aurreko mendean Oñatin izandako txokolate lantegietako informazio ugari dago: argazkiak, fakturak, etiketak, bilgarriak....



Usainak. Txokolate mota ezberdinak (beltza, txuria, esneduna) zein osagairekin egiten den ikusi, eta kakaok txokolate bihurtu arteko fase ezberdinetan duen usain ezberdinak usaintzeko aukera dago.



Denda. Txokolateixako bisitak dohainik dira, baina bukaeran tabletaren bat erosteko gonbitea egiten da, hauxe baita txokolatearen interpretazio zentroa bizirik mantentzeko duten diru iturria. Natra enpresak egin eta atzerrian saltzen dituen produktuak eskura daitezke bertan. Kakao portzentai ezberdineko (%50etik %85eraino) txokolate beltzak, esnedunak eta txuriak, edota beste osagai batzuekin (kafea, laranja, menta, gatza...) egindako produktu bereziak eskura daitezke. Gainera, goiko argazkietan ikus daitekeen moduan, erabat pertsonalizatuta (etiketak eta formatoa) erosi daitezke. Aukera ona izaten da ezkontza edo enpresa opari bezala emateko, besteak beste.

enpresa ekimenak

ElkarLanean psikologia, logopedia eta klase partikularrak

Tarteka, udaleko Enplegu sailaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenak aurkezten ditugu orriotan. Oraingo honetan, Olatz Urteagak eta Amaia Olariagak sortu duten ELKARLANEAN enpresaren berri ematera gatoz. Eskolako laguntza, psikologia eta logopedia zerbitzuak eskaintzen ditu, haur, gazte nahiz helduentzat.



Olatz Haur Hezkuntza graduatua da, Entzumena eta Mintzairan espezializatua. Amaia psikologoa da. Ikasteko zailtasunen aurreko esku-hartzean eta Haur Psikoterapian espezializatua.

Nolatan erabaki duzue ELKARLANEAN sortzea?

Hainbat lekutan klase partikularrak ematen ibili ondoren, geure enpresa propioa sortzeko uea zela erabaki dugu. Olatzek akademia eta logopedia zentro bat jartzeko asmoa zeukan bere aldetik, eta, azkenean, biok elkartu, bion formazioa eta esperientziak batu, eta zerbitzu osatuago bat sortzea erabaki dugu, klase partikularrak ez ezik, logopedia eta psikologia zerbitzuak ere eskainiz.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue?

Batetik, laguntza eskola edo klase partikularrak ematen ditugu; Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergoko 2. maila arte. Ikasgai guztiak lantzen ditugu: matematika, fisika, kimika, irakurketa-idazketa, ingelesa.... Beti ere talde txikietan (gehienez lau pertsona) lan eginez

Bestalde, psikologia eta



Bidebarrieta 9, behea / 943 78 06 95 / elkarlanean14@gmail.com

logopedia arloan, diagnostikoak eta tratamenduak egiten ditugu, bai hurrei zuzenduta, eta baita persona nagusiei ere.

Alde batetik, eskolan arazoak dituzten haur eta gazteekin egiten dugu lan, autoestimua, motibazioa, ikasketa teknikak eta jokatibide aldaketak landuz. Hiperaktibitatea bezalako arazoak ere artatzen ditugu.

Arlo akademikora mugatu barik, pertsona nagusien-

tzako terapia psikologikoa ere eskaintzen dugu, besteak beste, alzheimer gaitza duten pertsonei lagunduz.

Logopedia arloan, era askotako arazoak zuzentzen ditugu: dislexia, disortografia, afasia, disfasia, dislalia...

Hurrekin ez ezik, pertsona nagusiekin ere egiten dugu lan, adibidez, ictus baten ostean afasia bat sortu duen pertsona helduarekin.

Aurrerago, tailer ezberdinak (musikoterapia, risote-

rapia...) eta gurasoei zuzendutako hitzaldiak antolatuzko asmoa ere badugu.

Laguntzarik jaso al duzue?

Udal Sozioekonomia sailarena; 300 euro enpresaren bideragarritasun azterlana egiteko, eta 2.000 euro sortutako bi lanpostuengatik. Irudi korporatiboa euskaraz jartzeagatik ere jaso dugu Udalaren laguntza



Ura eta erreken astea Oñatin

urriaren 11tik 19ra

Bigarren urtez **Ibailagun** programa martxan jarri da. Helburua gure erreken eta uraren garrantzia ezagutzera ematea eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa herritarren artean piztea jarraitzen du izaten. Honetarako, aurten ondoko ekitaldi hauek prestatu dira eta herritar guztiok gonbidatuta gaude hauetan parte hartzera. Denon gustukoak izango direlaokan, disfruta dezagun gure erreka eta ibai biziekin!

Gure erreken eta uraren garrantzia ezagutzera eman eta hauen babesarekiko sentsibilizazioa piztea da jardunaldion helburua



Iazko erreka garbiketako irudia (Natur Eskola)

egitaraua

URRIAK 11, larunbata

Bizikleta ibilaldia Epelera

Goizeko 10etan Foruen enparantzan.

Txirrinka eta Natur Eskolaren gidaritzarekin Oñati eta Deba errekei buruzko azalpenak emango dira bidegorrian zehar Epeleko araztegraino. Bukaeran, araztegia bisitatuko da.

URRIAK 11tik 19ra:

‘Oñatiko erreka bizirik!’ erakusketa

Oñati erreka harriguneko pasealekuan zehar erreka buruzko informazio panelak.

URRIAK 15, asteazkena:

‘Ura eta erreka Deba ibarrean’ dokumentala

Arratsaldeko 19:30tan Kultur Etxean.

‘Ura eta erreka Deba ibarrean’ dokumental laburra eta solasaldia. DOHAINIK.

URRIAK 18, larunbata: ERREKA GARBIKETA

Goizeko 9tan Foruen enparantzan.

ERREKA GARBIKETA. Errekan ibiltzeko oinetako egokiak (katiuskak edo oinetako zaharrak) eta eskularruak ekartzea gomendatzen da. Ondoren luntx txiki bat egingo dugu herriko plazan. Batu diren hondakinak bertan ikusgai utziko dira.



Batutako hondakinak plazan jarriko dira ikusgai

URRIAK 19, igandea:

Mendi irteera: ‘Berotegi eta Arranoaitz: bi erreka eta hainbat sekretu’

Goizeko 8:30tan Foruen enparantzan.

Natur Eskolako kideek gidatuko dute irteera. Otartekoa eramatea gomendatzen da.

HARITZA

Paperdenda
Liburudenda
Lotoa
Opariak

Kale Zaharra, 4
Tfnoa: 78 23 06

BATUAK S.A.

MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50

Bide partekatuean

Txirrindulariak eskuinaldetik eta oinezkoak ezkerretatik

Bide-lerroz banandu gabeko oinezko, txirrindulari eta auto-entzako bide partekatu batean goazenean (Torreaurotik Madalenarako tartea, adibidez) ondorengo aholkuak kontuan hartzea komeni da, elkarbizitza arazoak ekiditeko: Txirrindulariak eskuinaldetik joan behar dira, ea oinezkoak ezkerretatik, eta kontuz beti ere automobilekin. Txirrindulari edo oinezkoek ez dute bidearen zabalera osoa hartu behar, eta ez da komeni bide erdian gelditzea hizketan. Tunel eta kurba itxietan abiadura moteldu.



Bide-lerroz banandu gabeko oinezko, txirrindulari eta autoentzako bide partekatuetan adi!

< Munduan zehar >

Garraiobide jasangarriak sustatzeko modurik egokienetarikoa bat, gobernuen aldetik, pizgarri ezberdinak ezartzea izaten da; bizikletan lanera joateko ekimenak bultzatzea, esaterako.

Hori horrela, arrakasta handiko hainbat kasu ikus daitezke munduko herrialde ezberdinetan. Aipagarria da adibidez, Frantziako gobernuak, lanera bizikletan doazen kasuan aplikatzen duena.

Etxetik lantokirako bidea bizikletan egiten dutenek, 0,21€ kilometroko, egunean jasotzen dituzte. Baina ekimen honek baditu bere mugak ere.

Frantziak aparteko ordainsaria proposatu nahi du bizikletan lanera doazenentzat



Parisen ere bizikleta zale ugari daude.

15 kilometro arteko distantziak egiten dituztenen kasuan aplikatzen da. Horrenbeste mozketak dauden honetan, zorakeria dela dirudi, baina hainbat ikerketek diotenez, herrialdeari errentagarri aterako zaion neurria izango da.

20 milioi € inguruko inbertsio bat eskatuko du aipatu planak, baina ikerketek diotenez, 5600 milioi euro urteko aurrezte bat lortuko du osasun gastuetan.

Beraz, garbi dago era honetako ekimenek, jasangarritasuna eta ekologiaren aldeko apostua egin ezezik, estatua-aren diru-kutxak ere onura aterako dezaketela.

ALTUBE ZERRITZUAK

MAPFRE

Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 65

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inxorta@telefonos.es



Izena: Asier Gorostiaga
Ogibidea: Dendaria

Zer da bizikleta zuretzat?

Lehen, aspaldi samar, kirola zen niretzat bizikleta. Oraina garraio-bide bat da. Aukera bat.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Herrian ibiltzeko erabiltzen dut; gurasoen etxera joateko, erosketak egiteko, eta dendako enakarguak egiteko ere bai

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Garraio-bide eroso da, azkarra, osasungarria eta merkea. Aparkatzeko arazorik ere ez daukazu. Abantaila asko ditu, eta pega gutxi. Eguraldia ere ez da aitzakia; euria eginez gero, aterki batekin lasai asko ibil zaitezke herri barruan.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Nik uste dut bidegorri sare polita daukagula. Arazo bakarra ikusten dut erdiguneko kaleetan, Kale Barrian eta Kale Zaharreen, baina soluzioa ez da erraza, kale estuak dira eta. Hor kontu handiz ibili behar du bizikletazaleak, oinez-koak errespetatuz beti ere.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso Jendea ari da konturatzen oso garraio-bide praktikoa dela, eta gero eta gehiagok erabiliko dute.

Urriak 11, goizeko 10:00

Bizikleta ibilaldi gidatua, Txirrinka eta Natur Eskolaren eskutik

Oñatiko Natur eskola eta Txirrinka taldeak elkarlanean antolatutako bizikleta ibilaldi gidatua izango da herriko jaien ostean, urriak 11an larunbatean. Ibilaldia Oñati eta Epeleko arztegi artean izango da izango da.

Goizeko 10etan herriko plazan elkartu eta poliki poliki, geldialdiak eginaz, inguruaz gozatuaz, Natur eskolako gidarien azalpenak entzun eta Oñati eta Arrasate bitarteko natur aniztasuna ezagutzuz, Epeleko arztegira iritsiko gara. Ondoren arztegiaren funtzionamendua ezagutu ahal izango dugu bertako langile batek gidatuta, eta azkenik Oñatira buelta egingo dugu bidegorritik denok elkarrekin, eguerdiko 14:00ak aldera berriro ere Oñatin izateko asmoz.

Animatu eta etorri Oñati eta Arrasate arteko bidegorriko natur aniztasuna eta Epeleko arztegia ezagutzera.



Oñati eta Elorregi arteko bidegorria.

Merkatua >

Sandwichbikes



Sandwichbike berezi hauek norberak etxean muntatu ahal izateko daude diseinatuak. Egurrezko bi panel nagusi sandwich eran elkartzen dira gainontzeko piezekin eta diotenez, norberak nahi duenean muntatu eta desmuntatu daiteke bizikleta; azkar eta pausu oso simpletan.

Informazio gehiago:

www.sandwichbikes.com

Prezioa:

700-900€ inguru

caravanas  oñate



• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Oñateko zubia, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Oñateko zubia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 Irukkusketan

Emakumeen Jabekuntza Eskola

Emakumeen topaketarako, formaziorako eta gogoetarako gunea sortu du Andraitz talde feministak

ZERGATIK JABEKUNTZA ESKOLA BAT?

Andraitz Oñatiko talde feministak Jabekuntza Eskola sortu du, emakumeen arteko harremanak saretu, elkarrengandik ikasi, eta ondo pasatzeko topalekua izateko. Emakumeen ekarpenak jaso eta baloratzeko, pertsonalki eta talde gisa indartzeko, eta gizarteari ekarpen propioak egiteko.

Jabekuntza hitzarekin ikasketza eta kontzientziatze prozesu bat adierazi nahi dugu. Mundu osoan agintzen duen sexismoak emakumei ezartzen dien diskriminazio eta menpekotasun egoera salatu eta horren kontra egitea ahalbidetzen duen prozesua.

Egun, emakumea desberdintasun egoeran dago; emakumea izateagatik soilik, bazterketa eta zapalkuntza gogorra bizi du. Horregatik, Andraitzek dei egiten die herriko emakume guztiei, errealitate diskriminatzailea elkarrekin errotik aldatzera. Berdintasuna aldarrikatzeko gure "armak" gure ezagupenak izango dira: sormena, jakintza, autodefentsa, algara eta barreak, eraldaketa, ekoizpena, dantza, gozamina...

Andraitz



PARTE HARTU ETA ASKATU!

► TAILER ETA IKASTAROAK

Jabekuntza Eskolaren barruan hainbat tailer eta ikastaro antolatu ditu Andraitzek Oñatiko Udala eta Emakunderen laguntzarekin. Herriko emakume guztiei zuzenduta daude. Prezioa: langileak 30€; langabetu eta ikasleak 15€. Izen-ematea Andraitzen egoitzan (San Juan kale, 5) / a.jabekuntzaeskola@gmail.com / 615781068 (beharrezkoa denean).

● BATUKADA FEMINISTA

Emakumeak musikaren bidez ahalduz

Musikaren bidez, emakumeen arteko elkarlana, sormena eta irudimena lantzea da tailerraren helburua, autonomia eta autogarapen propioa bultzatuz. Tailerra ETEO zaharrean izango da, astelehenetan (18:00-21:00). Egutegia: **urriak 13-27, azaroak 19-24, abenduak 22, urtarrilak 19, otsailak 2-16 eta martxoak 2-16**. Ainara Sarasketa perkusionistak eta Arantxa Vicedo musikari eta konposatzaileak gidatuko dute

● NITAZ ARDURATU, ZUTAZ ARDURATU

Emakume zaintzaileentzako tailerra

Historikoki, jasotako sozializazioak hartara bideratu gaituelako, emakumea arduratu da familiako kideak zaintzeaz, horrek dakarren ardura eta gainkarga fisiko eta emozionalarekin. Horregatik, tailer honen helburua da zaintzaile rola inguruan gogoeta kritikoa egitea, eta harremanak berdintasunetik eta errespetutik negoziatzen ikastea. Garapen pertsonala bultzatu eta emakume zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko tresnak eskainiko dizkigu tailer honek. ETEO zaharrean izango da, ostegunetan (10:00-12:00). Egutegia: **urriak 16-23-30, azaroak 5-12-19-26, abenduak 3-10**. Kontxi Lopez Soria gizona langileak gidatuko du. Euskaraz eta gaztelera.

● 'GUINE FARE' DANTZA AFRIKARRAK

Emakumeak bere gorputza ezagutzen

Dantza afrikarren bidez gure gorputza ikertu, gozatu eta berraurkitzeko gunea bat sortuko dugu, doinuak entzunez, eta askatasunez mugitzeak ematen duen atsegina gozatuz. ETEO zaharrean izango da tailerra, asteazkenetan (18:00-19:30). Egutegia: **urriak 8-15-22-29, azaroak 5-12-19-26, abenduak 3-10-17**. Afrikako kultura aditua den Anne Agirre Berdintasun agenteak zuzenduko du tailerra.



- Gosari eta hamarretakoak
- Karta
- Eguneko menuak
- Razioak
- Aste bukaerako menu bereziak
- Era guztietako bokadilloak
- Plater konbinatuak
- Hamburgesak



Ia 2 kiloko tomatea

Aurtengoa ez omen da tomate urte onegia izan, baina begira nolako alea jaso zuten Benturena baserrian, 1890 gramoko tomate puska, garbi garbia eta haragitsua. Garbi dago esku fina edo lur berezia dutela Benturenan, Herri Eguneko azken urteotako sari gehienak ere berak eraman baititu



'Che' Guevararen aginduz fusilatu zituzten 55 gizoni laguntza espirituala eskaini zien Arzuagak

'A LA MEDIANOCHE'

Javier Arzuagaren liburua turismo bulegoan eta herriko liburutegietan dago salgai

Irailaren 25ean Angel Gonzalez Katarainek zuzendu duen 'A la medianoche. Conversaciones con Javier Arzuaga' dokumuntala estreinatu zen Oñatin, Zine-Klub taldearen eskutik. Javier Arzuaga oñatiarrak idatzitako 'A la medianoche' liburuan oinarrituta dago dokumentala, eta Kubako iraultzaren lehen hilabeteetan Arzuagak Habanako *La Cabaña* kuarter militarrean bizi izandako esperientziak kontatzen ditu. 'Che' Guevara zen La Cabaña-ko arduraduna, eta bertan antolatuta ziren justizia epaitegiak. Arzuagak, bertako kapilaua izanik, une latzak bizi behar izan zituen, berak eskaini baitzuen azken uneko laguntza espirituala fusilatzerako kondenatutako 55 gizoni. 'Che'-rekin izandako hartueman eta elkarrizketen berri ere ematen du Arzuagak liburuan.

Orain, dokumentalaren estreinaldiaren harira, liburuaren edizio berezi bat argitaratu dute, eta 15€-tan dago salgai Turismo Bulegoan eta herriko liburutegietan.

Ikas Komunitateak proiektua lantzen dihardute Elkar Hezin

Europar Batasunak finantziatutako ikerketen arabera, ezinbestekoa da komunitateko kide guztien parte-hartzea ikaskuntza-jarduera arrakastatsuak garatzeko. Eta horretan dihardute Elkar Hezin. Ekainean gai hauetan aditua den Ramon Flecharekin hainbat lan saio egin zituzten Bigarren Hezkuntzako irakasleek. Pasa den astean HH eta LHkoen txanda izan da, eta bienbitartean guraso eta batxilergoko ikasleak aritu dira irakasle lanetan

Gripearen aurkako kanpaina abian da

Gripearen aurkako txertoa hartzeko kanpaina jarri dute abian osasun arduradunek. Ohi bezala, 65 urtetik gorakoei eta gaixotasun kronikoren bat dutenei gomendatzen zaie, eta aurten, bereziki, haurdun dauden emakumeei ere. Azaroaren 30era arte luzatuko da

**ELKAR HEZI
HAURTZAINDEGIA**

**MATRIKULAZIOA
ZABALIK**

www.elkarhezi.com

Haurtzaindegia, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza :
Arantzazu kalea 18, tlf: 943 71 82 72
DBH eta Batxi: Santa Marina plaza 2, tlf: 943 78 28 70

Bakarkako bisitak egiteko edota informazio gehiago eskatzeko deitu 943 71 82 72 telefonora



ETXAIXATek irabazu du San Migeletako Futbol-7ko txapelketa, finalean 3-0 irabazita Kalañatasayri.

Superkopa jokatu hasiko da aurten HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Berritasun batekin ekingo dio Herriko Futbol Txapelketak denboraldiari, lazko liga eta kopa txapelkunek (**Doolygans** eta **Kalañatasaray**) Superkopa jokatu dute. Urriaren 11n izango da, Azkoagainen. Badirudi lehenago ere, 80ko hamarkada hasieran, jokatu zela Superkopa **Narruti** eta **Lokotxak** taldeen artean (**Narrutiren** alde 1-0) baina ordutik ez omen da beste inoiz jokatu. Bestalde, urriaren 18-19an jarriko da martxan txapelketa 14 talderekin, sekula baino gutxiago. **Zorroberok** eta **Nandrolonak** utzi egin dute.

ETXAIXAT, URTEKO LEHENENGO TXAPELDUNA

Irailaren zehar beteranoren futbol-7ko txapelketa jokatu da Larrañan. Bederatzi taldek parte hartu dute eta finalean Etxaixat nagusitu zen (3-0) Kalañatasarayren aurka.

■ BOLAJOKUA

Egoitz Atxaga irabazle

Desberdinketa jokatu behar izan zen aurtengo bolo txapelketako irabazlea erabakitzeko. Lehen tiraldian 9na txirlo bota zituzten Jose Mari Beitiak eta Egoitz Atxagak. Berdinketa hausteko tiraldian 2 bota zuen Beitiak eta 6 Atxagak. Hirugarren Ritxi Perez sailkatu zen 7rekin. Guztira 78 bolarik parte hartu zuten, Kurtze Baltz elkarteak antolatutako txapelketan.



■ TXAKUR TXAPELKETA

Bost aldiz txapeldun

Enrike Mendiguren orozkoarrak irabazi du Oñatiko Txakur txapelketaren 55. edizioa **Riki** 4 urteko euskal arrazako txakurrekin.

Oñatin lortzen duen bosgarren txapela da, baina hamar urte zeraman Oñatin nagusitu barik eta pozarren zegoen. Aurretik, *Argi* (1998), *Noizarte* (2001) eta *Riki* aitarekin (2002 eta 2004) irabazia zen Oñatin. Txapeldun handien familia alajaina!



■ PLATER TIROA

Hamaikagarren txapela Jesus Inzarentzat

Jesus Inzak irabazi du Mikel Deunaren plater tiraketa, plater guztiak (15) jota. Bigarren Mikel Zumalde sailkatu zen 14rekin. Jose Antonio Guridi, Fernando Irizar eta Jose Luis Moredak 13na jo zuten. 62 lagunek parte hartu zuten. Jesus Inzak irabazi duen 11. txapela da.

■ LATERKETA HERRIKOIA



Arrasate-Oñati urriaren 11n

Urriaren 11n jokatu da Arrasate eta Oñatik arteko 11,8 km.-ko lasterketa herrikoia, Antxintxiketan eta Arrasateko Atletismo taldeak antolatuta. Azken urteetan bezala, korrika ez ezik, patinetan egiteko aukera ere egongo da. Korrikalariak Setan abiatuko dira Portaloitik, eta patinatzaileak 5 minutu lehenago.

Iaz bezala, ibilbidearen zati bat bidegorritik egingo da.

kirolprobak.com webgunean eman daiteke izena (10€) urriaren 10era arte. Txipa nahi dutenek 2 euro gehiago ordaindu beharko dute. Autobusak egongo dira korrikalariak Oñatik Arrasatera eramateko.



ZURICH

M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxori Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERFORATZAILAK, LANTZAK, BURBUJATZAILAK, ANBUAK, PINTURAK, LANTZAK...



DISKONBATZAILA ETA MANTUNTZAILAK
BERRABILIA, HERRAMAKUAK ETA ASKATU GONAK
GARRANTIA 12.000 REN. ZUBOIA 100000 - 1000000
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ZUBIKOA KIROLDEGIA

urrian hasiko diren FITNESS zerbitzuak

▶ RUNNING

- Astelehena eta asteazkenak: 18:15

Korrika egiteko taldea, hasiberrientzat. Hiru hilabeteko iraupena izango du. Horrela, nahi duenak bere eskura izango du abenduko San Silbestrean parte hartzea.



▶ GHA (Gimnasia abdominal hipopresiboa)

- Astelehena 17:15, asteazkena 10:15 edo 20:15

Pelbisaren inguruko giharrak sendotzeko ariketa posturalak. Onurak: gerriaren perimetroa gutxitu, bizkarreko arazoak ekidin, gernu ihesari aurre egin...



▶ SGA (Stretching global aktiboa)

Astean egun bateko saioa.

- Astelehena 10:15 edo 20:15, eta asteazkena 17:15

Luzaketa globaletan oinarritutako saioak, malgutasuna eta ongizatea hobetzen laguntzeko.



OHARRA: 3. ADINEKOENTZAKO GIMNASIA eta GIMNASIA EGOKITUTAKO taldeak ere martxan jarri dira urrian hasiko dira.

IGERIKETA ETA UR EKINTZAK

Igerilekuetan egin beharreko garbiketa eta konponketak egin ostean, urriaren 13an jarriko dira martxan igeriketa ikastaroak eta ur ekintzak Zubikoa kiroldegian. Gogoratu, haurrei zuzendutako ikastaroetan 407 plaza eskaini direla, eta oraindik badaudela plaza libre batzuk ordu jakin batzuetan.

MENDI IRTEERA - URRIAK 19

Valdezcaray-San Lorenzo (2.271m)

Aloña Mendiko Mendi Taldeak hil honetako antolatutako duen ibilaldia Errioxa aldera izango da. Valdezcarayko eski estaziotik abiatuta, zuzen, Colocobia aldetik, San Lorenzo mendia gailurrera igoko dute. Jeitsiera luzeak Valvanerako santutegiraino eramango ditu. 17 km.-ko ibilaldia da, 700m.-ko desnibelarekin. Ez dauka zailtasun berezirik, eguraldiak edo hotzak jar lezakeena baizik. Irteera, goizeko 7etan Korreos parean. Izena emateko azken eguna, urriak 16. Bazkideek 10€; ez bazkideek 13€, langabetuek 5€



Irailaren 14an Monte Perdido ateratako argazkia

Mikel Ugarte Euskadiko Triatloi txapelkun sub-23 mailan

Irailaren 6an Zumaian jokatu zen distantzia motzeko Euskadiko Triatloi Txapelketa irabazi zuen Mikel Ugarte oñatiarrak 23 urtetik beherakoen mailan. Igerian 750 metro, bizikletan 20 km. eta korrika 5 km. zen egin beharreko lana, eta triatleta oñatiarrak 1:00:43an osatu zuen. Saikapen orokorreko bosgarren tokian helmugaratu zen, Jon Unanue (59:44) irabazlearengandik minutu eskasera.



LEHEN

ORAIN

Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK

%30 urroko
diru-laguntzak

Intenbide orienak
isolamendu termikoko
sistemak (SATE).

kuber@kuber.es Tfno. 943 73 35 73 | www.kuber.es

MIKEL MANTXOLA - Eskubaloiko epailea**“Txikitatik hasi behar dugu errespetuzko jarrerak lantzen kirolean”**

Euskadiko Eskubaloi federazioak deituta, maila guztietako 90 arbitro batu ziren Oñatin irailaren 7an, aurrendenboraldiko lan saio fisiko eta teknikoak egitera. Tartean zen Mikel Mantxola oñatiarra, eta aukera baliatu nahi izan genuen kirol-epaileen lanaz hitz egiteko.

Noiztik arbitro lanetan?

Duela 25 bat urte hasi nintzen. Gero, lan kontuak tarteko, urte batzutan utzi egin nuen, eta berriro hasi nintzen orain dela hamabi urte. Garai batean Euskadiko federazioan egon nintzen, eta nazional mailara igotzeko zorian. Gaur egun Gipuzkoako federazioan nago, eta maila guztietako partiduak arbitratzen ditut.

Zergatik arbitro?

Hasieran, beharra zegoelako. Klub bakoitzak norbait jarri behar izaten zuen epaile lanak egiteko, eta Aloña Menditik neu hasi nintzen joaten. Gero federazioak eskatu zidan jarraitzeko, eta eskubaloia asko gustatzen zaidanez, hortxe jarraitzen dut. Gaur egun, batez ere, arbitro gazteei laguntzea da nire funtzioa.

Normalean ez da batere esker onekoa izaten arbitro lana, ala bai?

Tarteka entzun behar izaten ditugu isekak eta irainak, baina ohitu egiten zara; badakizu betiko berdinak direla eta ez diezu kasurik egiten. Azken batean, epaileak beharrezkoak dira eskubaloi partiduak jokatu ahal izateko, eta horixe da ni motibatzen nauena, alegia, eskubaloiaren alde lanean ari naizela.

Kezkagarriena da, beharbada, neska-mutiko gaztetxoaren partiduetan ikusten dena; guraso asko itsutu egiten dira, eta oso irudi eta eredu eskasa ematen dugu. Lan handia egin behar dugu denon artean (guraso, entrenatzaile, arbitro...) oinarriko kategorietan errespetuzko jarrerak bultzatzeko. Bizkaia aldean “Txartela beltza” aplikatzen hasi ziren duela bi urte; epaileak ikusten badu giroa gaiztotu egiten dela, txartel beltza atera eta partidua bertan behera utz dezake.

Nahikoa arbitro al dago gaur egun Gipuzkoan?

Gaur egun bai. Azken hamar urteotan lan ona egiten ari da federazioa, ikastaroak eta prestakuntza saio bereziak antolatuz. Guk, beteranook, epaile gazteekin arbitratzen ditugu asteburu-tako partidu



“**Epaileak beharrezkoak dira eskubaloi jokatzeko, eta horrek motibatzen nau aurrera jarraitzeko**”

“**Asteburu epaile gazte batekin arbitratzen dugu partidu bat, esperientzia hartzen joan daitezen**”

asko, esperientzia eta konfiantza hartzen joan daitezen.

Zenbat partidu izaten dituzue asteburu batean?

Orain gutxiago. Lehen sei edo zortzi partidu izaten genituen asteburu. Gaur egun pare bat. Gero, tarteka, Aloña Mendikoei laguntzen diet gaztetxoaren mailako partiduren bat arbitratzen.

Kontaktua handiko kirola da eskubaloia. Zaila al da arbitratzeko?

Bai. Gainera araudia ez da oso zehatza zenbait gauzatan, eta eta epailearen interpretazioaren esku uzten ditu erabaki asko, eta, jakina, horrek eztabaidarako atea zabaltzen du askotan.

Noiz arte epaile lanetan?

Federazioak eskatzen didan bitartean jarraituko dut, eta gero Aloña Mendiri laguntzen. Zainetan daramagu eskubaloia eta beri egongo dda zertan lagundu. Aurten, entrenatzaile lanetan laguntzen ere banabil, Jon Ander Osingaarekin, senior mailako nesken taldean.

Alain Anton - Saskibaloi epailea**Ederra litzateke EBA mailara igotzea**

Alain Anton duela sei urte hasi zen epaile lanak egiten, eta ibilbide bikaina darama. Bost urtetan Probintzial mailatik Lehen Maila Nazionalerako jauzia eman du, eta aurten EBA mailara igotzeko zorian egon da. Maitzean Espainiako txapelketan aritzeko aukeratu eta bat izan zen, eta horixe izaten da Espainiako federazioan sartu aurreko urratsa.

Hasi berri den denboraldia oso inportantea izango da beretzat; 28 urte ditu eta, beharbada, aurtengoa izango du EBA mailara igotzeko azken aukera, eta horretan saiatu nahi du. Oso zaila da, EBA mailan plaza mugatuak daudelako eta, beraz, ez da nahikoa norberak lan ona egitea.

Asteburu hiruzpalau partidu zuzentzen ditu, eta denboraldia unerik beroenera iristen denean, martxotik aurrera, sei ere izaten dira. Kantxan ondo kokatuta egotea omen da funtsezkoa saskibloi epaile batentzat, eta horretarako ondo prestatuta egon behar da bai fisikoki eta bai psikologikoki ere, une kritikoak egoki kudeatu ahal izateko.

Saskibaloia oso kirol diziplinatua da eta, oro har, errespetatu egiten da epailearen lana. “Tarteka izaten dira partidu gogorak eta publiko exigenteak, baina jokuaren beste ezaugarri bezala hartzen ditut nik. Batzutan publikoa aktibo egotea ona da, ez zaituelako erlaxatzen uzten”.

UME ETA GURASOENTZAKO IRAKURKETA KLUBA

Irakurzaletasuna sustatu asmoz 3-6 urte arteko hauerrei eta hauen gurasoei zuzendutako irakurketa kluba antolatu du udal liburutegiak

Irakurzaletasuna sustatzea helburu duen 'Bularretik Mintzora' programaren baitan, IRAKURKETA KLUBA izeneko ekimena antolatu du udal liburutegiak, Galtzagorri elkartearen laguntzarekin

3-6 urte arteko hauerrei eta hauen guraso edo hezitzaileei zuzendutako saioak dira. Gurasoek eta haurrek hainbat ariketa egingo dituzte, Galtzagorri elkarteko Miren Guillo ipuin kontalariak dinamizatuta. Hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak, eta beste hainbat ariketa lasai egingo dituzte, liburuak ezagutzuz gozatzeko.

Gurasoen eta haurren artean irakurketa giroa sortzea, gurasoak ozenki irakurtzen trebatzea, eta haurrek giro lasaian irakurketaz goza dezaten lortzea da helburua.

HIRU SAIO

Hiru saio izango ditu irakurketa klubak: azaroaren 12an, azaroaren 26an eta abenduaren 10ean. Arratsaldeko 6etan izango dira, eta izena ematen dutenek hiru saioetan parte hartu beharko dute



Izena ematen
dutenek hiru
saioetara
joateko
konpromisoa
hartu behar dute

PLAZA MUGATUAK

15 haurrentzako eta hauen gurasoendako lekua egongo da gehienez, eta izen-emate ordena errespetatuko da. Izena emateko azken eguna urriaren 31 izango da., liburutegian bertan (10:00-13:00 eta 16:30-20:30) edo telefonoz, 943716111



OSTEGUN KONTALARIAK berri ere martxan udal liburutegian

Udako etenaldiaren ondoren martxan dira berri ere OSTEGUN KONTALARIAK haurren liburutegian. Aurreko ikasturtean bezala, hileko azken ostegunetan ipuin kontaketa saio bana egongo da bertan. Hil honetako **urriaren 30ean** izango da., arratsaldeko 18:00etan, **3-6 urteko haurrentzat**

Irakurketaren bidez, eta modu dibertigarrian beti ere, irudimena eta fantasia piztu, eta haurrak liburutetara eta liburutegira erakartzea da ekimen honen helburua. Plaza mugatuak izaten dira eta, beraz, ohi bezala, gonbidapenak eskuratu beharko dira aurreko astean zehar haur liburutegian bertan. Lur korta izango da lehen saioko ipuin kontalaria.

TERTULIXAN

udal liburutegiko irakurleen klubak abian dira berri ere.

Udal liburutegian dauden bi irakurleen klubak, euskarazkoa eta gaztelarazkoa, hil honetan jarriko dira martxan berri ere. Euskarazko taldea urriaren 21ean elkartuko da (18:30), Irene Nemirovskiren 'Odolaren sua' nobela aztertuko dute. Peru Magdalena idazleak dinamizatuta. Gaztelarazko taldea hilaren 28an elkartuko da Luis Buñuelen 'Mi último suspiro' liburua komentatzera, Ruben Arias EHuko irakaslearen laguntzarekin.

Gogoratu, irakurleen klub hauek irekiak direla, eta izena emateko epea zabalik dagoela. Hilean behin elkartzen dira, irakurritako liburua komentatzera. Aukera aparta da literaturaz disfrutatzeke, ikasteko eta herritar ezberdinen topagune izateko.




TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA 

URRIKO AGENDA

Oñatiko VI. Trikiti Jaialdia

URRIAK 25, LARUNBATA, SANTA ANAN, 17:30ETAN



Esne Beltza taldeko Xabi Solano izango da trikitilarietako bat

► Goi mailako trikitilarien topaleku bihurtuko da Oñati

PARTEHARTZAILEAK

- Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea
- Imuntzo eta Beloki
- Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar
- Xabi Solano eta Cristina Solano
- Agirrebeña anai-arrebak eta Jauregi
- Kepa Junkera eta Sorginak
- Gozategi anai-arrebak

AURKEZLEAK:

Kepa Zubeldia eta Ibai Urdangarin

Azken urteetako ohiturari eutsiz, goi mailako trikiti jaialdia antolatu du aurtur ere Lizargarate Oñatiko Trikitizale Elkarteak. Seigarren edizioa izango da aurtengoa, eta goiko zerrendan ikusten den moduan, punta-puntako musikariak bilduko dira Santa Ana aretoan. Bertan izango da Kepa Junkera, zazpi gaztez osatutako Sorginak taldearekin, eta aurkezpenik behar ez duten Imuntzo eta Beloki eta Gozategi anai-arrebak, beste trikitilari gazteagoekin batera. Azpinarratzekoa baita ere Xabi Solanoren partehartzea; Fermin Muguruzarekin hainbat proiektutan ibili ondoren, Esne Beltza taldea sortu zuen Solanok. Sarrerak Arrano eta Urbia tabernetan daude salgai 10 eurotan.

ONDOREN AFARIA ETA ERROMERIA

Jaialdia bukatu ondoren, trikiti giroan jarraitu nahi dutenentzatko afaria egongo da Gaztelekuan, gaueko 21:00etan hasita. Menuak 20 euro balio du eta tiketak Arrano eta Urbia tabernetan egongo dira salgai urriaren 7tik 19ra. Afalostean (23:00) erromeria egongo da Gaztelekuan bertan, Gari eta Iñakiren eskutik. Sarrera doan da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta bertara

ARGAZKIGINTZA IKASTAROA

Oinarrizko maila

URRIAK 18-AZAROAK 29

Gure argazki kamerak eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta argazkiak hobetzeko tailer praktikoa antolatu du Plazaola argazki dendak. Urriaren 18an hasi eta azaroaren 29an amaituko da. Larunbat goizetan (09:00-13:00) izango dira saioak. Plaza mugatuak (12). Prezioa, 75€. Informazioa eta izen-ematea: plazaoladigital@gmail.com, edo Plazaola dendan, urriaren 17a baino lehen.

ARGAZKIGINTZA

Hastapen eta Sakontze mailak

Oñatiko ILUNPETAN taldeak bi ikastaro antolatuko ditu urritik aurrera. 'Hastapena' mailakoak 10 saio izango ditu, asteartetan (urriaren 14an hasita) 18:00etatik 19:30etara. Prezioa, 60€.

'Sakontzen' mailakoak urte osoko iraupena du eta hiru hileka banatutako monografikoetan oinarrituko da: Paisaia, Erretratua eta argazkigintza dokumentala landuko dira. Astean behingo saioak izango dira (19:30-21:00), Prezioa, 60€ hiru hileko. Informazioa eta izen-ematea: 605 753 966 edo , ilunpetan@gmail.com urriaren 12a baino lehen.

ANE MERTZERIA

- Joateko zerak
- Lantzeria
- Umeon jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
 Faxe: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ERAKUSKETA - Urriaren 12ra arte

Oñatiko Ageriko margo lehiaketako lanak daude ikusgai kultur etxean

OÑART Oñatiko Arte Taldeak antolatuta, Udalaren laguntzarekin, irailaren 21ean egin zen Oñatiko XII. Ageriko Pintura Lehiaketa, 22 nagusi eta 14 gaztetxoren partehartzearekin. Nagusien mailan Leticia Gaspar plentziarrak eraman zuen lehen saria (600€); Raimundo Argos (400€) bilbotarrak eta Imanol Querejeta (300€) azpeitiarrek osatu zuten podiuma. Oñatiko onenaren saria (300€) Xanti Ugarterentzat izan zen. Gaztetxoan mailan (-16 urte) Martin Uriarterentzat izan zen lehen saria (100€); Ines Uriartek eta Maddi Altolagirrek osatu zuten podiuma. Luis Laskurain, Leire Fernandez eta Mirari Sagarzazuk osatu zuten epaimahaia.

ERAKUSKETA. Lehiaketara aurkeztutako margolan guztiak kultur etxean daude ikusgai urriaren 12ra arte, asteleheneretik igandera (18:00-20:00). Kultur Etxeko eta Pake Lekuko pintura tailerretako ikasleen lanak ere ikusgai daude bertan.



Goian Leticia Gaspar saria jasotzen eta margolan saritua Behean, Xanti Ugarte oñatiar onenaren saria, eta gazteen mailako lehen hiru sailkatuak



IKASTAROA

Elikadura osasungarri-makrobiotikoa

Urriaren 18an hasiko dira Sukaldaritza Osasungarri-Makrobiotikoaren inguruko ikastaroa Araotz auzoan, Isabel Morenoren eskutik. Hiru maila ezberdin egongo dira:

● **1. MAILA:** elikadura ohitura osasungarriak azteertuko dira, geure burua osasuntsu mantentzen lagunduko digutenak.



● **2. MAILA:** urteko sasoi edo urtaro bakoitzerako egokiena den elikaduran sakonduko da.

● **3. MAILA:** arazo ezberdinei (estresa, pisu egokia, menopausia, etxeko sendabideak, elikadura eta kirola...) erantzuteko elikadura egokia landuko da.

Aurten, nobedade moduan, 4. MAILA ere antolatu dute, eta gai hauek landuko dituzte: emozioak eta elikadura, edari alkalinizatzaileak, insomnia, edertasuna, akupresioa...

Teoria eta praktika uztartuko da klaseetan. Hilean behin izango dira, goizez edo arratsaldez. Informazioa eta izen-ematea: 658 71 90 89

IKASTAROAK

Dultzaina eta txalaparta

Jose de Azpiazu musika eskolak dultzaina eta txalapartako ikastaroak antolatuko ditu aurten. Txalaparta tailerra 14 urtetik gorakoendako da eta bi hilabeteko iraupena izango du. Dultzaina ikastaroa 12 urtetik gorakoei dago zuzenduta. Musika eskolan bertan edo 94378 3174 telefonora deituta eman daiteke izena.

ERAKUSKETA

Eskulturak Arantzazun

Urriaren 19 arte dago ikusgai Arantzazuko Gandiaga Topagunean 'Amets-Kabi' izeneko erakusketa, Arantzazu Gaur fundazioa eta Arantzazuko Adiskideek antolatuta. Zortzi euskal eskulturgileren hiruna lan daude ikusgai. Asteburuetan bakarrik zabaltzen da erakusketa; ostiral eta larunbatetan (11:00-14:00 / 17:00-19:00) eta domeka eta jai egunetan (11:00-14:00).

ARRI
 Industria Hornidurak
 Burdindegia
 Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18
 suministrosarri@hotmail.com

Orain Oñatiarron zorhitzura!

NI moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
 Tel. Faxe: 943 71 62 40

Kultur etxeko ikastaroak



► PATCHWORK, HARDANGER, MYRESKA, AJOURETA, MAYORQUIN eta RICHELLIER

- Irakaslea: ARANTZAZU LIZARRALDE
- Egunak: astelehenak edo asteazkenak (14:30 -17:00 / 17:30-20:00)
- Taldeko 12 ikasle onartuko dira



► BITXIGINTZA

- Irakaslea: MIRARI SAGARZAZU
- Egunak: oategunak (18:00-20:00)
- Taldeko 10 ikasle onartuko dira
- Kurtsoan zehar bi ikastaro egingo dira: Hastapeneko (10 ordu) eta aurreratua (10 or.)



► ESKULAN DEKORATIBOAK

- Irakaslea: JASONE AGIRRE
- Egunak: astearteak: 15:00-17:00 / 18:00-20:00
- Taldeko 10 ikasle onartuko dira



► PINTURA

NAGUSIAK

- Irakaslea: LUIS LASKURAIN
- Egunak: astelehenak edo astearteak (16:00-18:00/18:00-20:00)
- Taldeko 20 ikasle onartuko dira

HAUR ETA GAZTETXOAK

- Irakaslea: MAYRA JIMENEZ
- Egunak: asteazkenak
- 1. Taldea (6-9 urte): 17:00-18:30
- 2. taldea: (10-15 urte): 18:30-20:00
- Taldeko 12 ikasle onartuko dira



► ZERAMIKA

NAGUSIAK

- Irakaslea: ARANTXA MADINABEITIA
- Egunak: astelehenak eta asteazkenak 19:00-20:30
- Taldeko 10 ikasle onartuko dira

GAZTETXOAK (7-12 urte)

- Irakaslea: ARANTXA MADINABEITIA
- Egunak: asteazkenak 17:00-18:30
- Taldeko 10 ikasle onartuko dira

IZEN-EMATEA:
Urriaren 8tik 17ra, kultur etxean.
E-maillez: kultura.idazkaritza@oinati.net

MATRIKULA (*):
Urriaren 20tik 31ra
-Nagusiak: 76,50
-Haurrak: 56,00
-Bitxigintza ikastaroa: 25,50
(* Langabetuak eta prestaziorik jasotzen ez dutenak ordaintzetik salbuetsita.

OHARRAK
-40 orduko ikastaroak.
-Bitxigintzaren kasuan, 10 ordukoa.
-Eskainitako plazak baino jende kopuru handiagoak izena emango balu, aukeraketa zozketa bidez egingo da. Onartutakoen zerrenda urriaren 2lean jarriko da kultur etxean.

XI. MENDIA ETA NATURA ARGAZKI LEHIAKETA

Urtero bezala, Aloña Mendiko Mendi Taldeak argazki lehiaketa antolatu du, mendia eta natura gai hartuta. Hiru sail bereiztuko dira, gaiaren arabera:

A- GIZAKIA MENDIAN: Gizakiak mendian egiten dituen aktibitateak (konpetizioak izan ezik) erakusten dituzten argazkiak: alpinismoa, mendiko eskia, trekking-a, korrika, eskalada, parapentea eta mendi bizikleta, adibidez.

B.- MENDI INGURUNEA: Mendiko ingurunea erakusten duten argazkiak, hala nola, goi mendiak, mendi txikiak, basoak, errekek, detaile edo makroak, fauna...

C.- GIZAKIAREN ERAGINA MENDIAN: Mendiko inguruneak gizakiarengandik jasaten dituen gehiegikeriak salatzen dituzten argazkiak.

Gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango dira



laz sarituetako bat, Josu Garairena

Urriaren 19a da lanak aurkezteko azken eguna

pertsonako eta gai bakoitzeko. Partaide batei gehienez sari bakar bat irabaz dezake gai bakoitzeko. Oñati saria, gai berean beste saririk jaso ez duen oñatiar batek irabazi ahal du.

Hiru sailak kontuan hartuz, ia 1.500 euro banatuko dira saritan.

Partehartzea Internetez

Partehartzea doakoa da eta www.concursosdigitales.com webguneko argibideak jarraitu behar dira. Urriaren 19a da lanak aurkezteko azken eguna. Aukeratutako argazkiekin erakusketa egingo da azaroaren 10etik 23ra, Mendi Hamabostaldiarekin bat eginez. Epaimahai Aloña Mendi elkartearekin harremanik ez duten hiru adituk osatuko dute.



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Urriak 3, 7, 15, 16 eta 31, eta azaroak 1, 2, 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Urriak 8, 9, 17, 18, 19, 27 eta 28, eta azaroak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Urriak 1, 2, 10, 11, 12, 20, 21, 29 eta 30, eta azaroak 7, 8 eta 9.

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Urriak 4, 5, 6, 13, 14, 22, 23, 24, 25 eta 26.

Guardiako taxilariak

IRAILAK 1 - 7

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

IRAILAK 8 - 14

IOSU LERTXUNDI
663 031 322

IRAILAK 15 - 21

ANA ORUETA
943 534082 / 650 059 999

IRAILAK 22 - 28

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

IRAI. 29 - URRIAK 5

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

ONĀTIKO

TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefono interesgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikruz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritzia943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIK

URRIAK 10
AZAROAK 14
ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK

AZAROAK 25

Plastiko batzea ohiko bilketa puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutzuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino lehen, 943 71 19 38 zenbakira deitu behar da. Traste zaharrak 20:00-22:00 artean atera behar dira.

Merkatu Txikia

Garajea alokatzen da Errekalde auzoko 17. atarian. Deitu: 667957848

Oñatin, pisua osatzeko pertsona bat beharko genukueen bi langile gara. Interesaturik egonez gero, deitu mesedez arratsaldeko 18:00-etatik aurrera 653 748 751 zenbakira.

Etxea alokairuan hartu nahi du familia batek, ahalik eta azkarren. Deitu: 662 181 220.

Duplexa salgai. Ultzezin kalea 11, behe solairuan. 150m² -ko etxea, 17,5m²-ko garaje itxia eta 100m²-ko lorategia.

Prezioa: 355.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

Etxebizitza salgai Euskadi Etorbidean. 3 logela, 2 komun, 3 balkoi, egongela eta sukaldea. 244.000 €. Tel.: 606172128

Etxea alokatzen da Moiua kalean. 75m², hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna ditu. Eraberritua dago eta berogailua ere badu. 619829209 / 629951015

Lokala alokatzen da Bidebarrieta kalean, 68m²-koa. Deitu: 943533637

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografixia

Umore Ona kuadrillia Oñatiko jaixetan

A spalditxuan **Errosarixoko bixamonak** Aikaragarritzko abixaria eta inddarra hartu baldin badittu be, etzan beti hola izan Oñatin. Bai, egun berezixa eta herrikoixa izaten zan: **ganadu-ferixia** Santa Marinar sari eta guzti, **euskal jokuak** nahiz **bertsolarixak** pelotalekuan, eta **sokamutur luzia** kalietan zihar goiz eta arratsalde; musika-bandiaren **kalejira jentetsua** be bai, goizeko zezenen ondoren. Baiña ez eukan herritarren aldetik gaur aiñako partehartze zabala eta zaratatsua, biharbada, orduko bizimoduak eta egoera politikuak ez euelako gehixenetan samurtasun haundirik emuten.

Dana dala, Francoren sasoian be saiaketan ziran kuadrilla batzuk fiestetan herrixa umorez eta musikaz animaitten, hartarako egoten ziran irriztuak aprobetxauaz: esate baterako, Kale barriko **Aitzgorri-Torrena** taberna inguruko taldia 1950eko hamarkadiaren erdi aldera; **Zubillagako** mutil gaztiak gerotxuago; **Lekunbarri-Portaleku** aldeko trianero drogeruak; edota **Oiñarri** alkarteko neska-mutillak frankismuaren azken aldera. Horrein argazki batzuk ekarri izan dittugu **Kontzejupetik** aldizkariko sail honetara.



Gaurko fotografixan ikusten dittugunak Kale Zaharreko **Ona** tabernan alkarketan ziran. Bilbo aldetik etorritako Mendigurentarrak egin ziran taberna horren kargu 1950eko hamarkadiaren hasieran. Kuriosua da garai bateko **Perratzaillenian** denpora gutxiren buruan suertau zan aldaketia. **Rikardo Mendiguren** eta **Ana Maria Lubianen** seme-alaben lagunak euren txokua euki euen taberna horretan. Urrin barikuak gehixenak, baiña **jatorri desbardiñetako gaztiak ziran**, euren gurasuak edo senidiak Oñatira lanera etorri ziralako. Batez be, Kale Zahar eta San Antue kale inguruan bizi ziran.

Ba, gazte honeik, bestiak beste, saski-baloi eta futbol taldiak antolatu zittuain **Txus-Ona** izenagaz. Saski-baloiari dagokixonez, Oñatiko lehenengua izango zan. Eta musika-arluan, argazkixak erakusten doskun lez, **Umore Ona** konpartsia sortu zan eurai esker. Gaiñera, erretratuaren goiko eta beheko ertz bixetan agiri diran Juan Antonio Mendikoa eta Jabier Elortza **Mig** musika-talde oñatiar ospetsuko kide izan ziran handik gutxira, Juan Migel Ordoki eta Jose Nikolas Galdosekin batera. Ezkerretik eskumara eta goittik behera honeitxek dittuzue 1962 edo 1963ko Oñatiko jaixetan hain dotore jantzitta agerketan xakunok:

Goiko illaran: Juan Antonio **Mendikoa** bilbotarra; Pako **Rabanete** Cuencakua; Mari Loli **Arozena** donostiarra; Rikardo **Mendiguren**, aitta, **Onako** tabernarixa; Xabier **Lazkano** eskoriatzarra; Jose Antonio **Yañiz** naparra; Rikardo **Elvira** Errioxakua; Rikardo **Mendiguren**, semia, bilbotarra.

Beheko illaran: Alfonso **Mendikoa** bilbotarra; Juan Mari **Lopez Altxaga** naparra; Juan Kruz **Arregi**, San Antue kalekua; Fernando **Mendikoa** bilbotarra, garai haretan Lasalleko fraidegai zana; Jose Mari **Gil**, bilbotarra, Mendigurentarren lehengusua eta Oñatin sarritan egoten zana; Leon **Lana** naparra; eta Jabier **Elortza Txinparta**, Atzeko kalekua.

Fotografixia nun atarata daguez eztago dudarik: **San Anton plazatzoko iturrizaren aurrian**, atzian Ona tabernia dakola, eta esku-matara Aurelio Igartuaren barberixia. Urte askuan hortxe egon zan **gasoliñeria kendu barri** izango zan, Etxaluze aldera eruateko.

J. E.

Fotografixia Patxi Elortza Kale Zaharreko erretatistia atara eben. Guri Leon Lanak itzi eta Fernando Mendigurenen bittartez heldu xaku. Argibide asko Fernando berari zor xaugu. Eskerrik asko!

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Eraikin berria
bukatzear*

*Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian*

*3 logeletako
etxebizitza zabalak*

*Informazioa
eta Salmenta:*

Larrain S.L.

Tel.: 943 21 33 88

www.moyua.com

GRUPO **MOYUA**

Larrain
INMOBILIARIARTEA



Orain



banak importa



BANAK

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11



zuretako
zuzenean...

SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03



grupo
muebladoro
mondragonesa

centro hogar MUEBLES

sofa
leku

koltxoi
leku

BANAK

58 urte baino gehiago zugandik gertu, etxeko goxotasuna sortuz